

Barrena

OSASUNA

"Edari energetikoak kontsumitzeak antsietatea eta lo egin ezina eragiten die nerabeei" / 4

Igor Horrillo
EHUko Farmakologia Saileko irakaslea



Igor Horrillo. UTZITAKO ARGAZKIA

ZINEMA

'Lehen aldiz' fikziozko telesaila grabatzen ari da Jone Arriola elgoibartarra Primeran plataformarako / 11



'BARREN'


ARTEA

Vitalia Samuilova lituaniarraren grabatuak Soraluzeko Oreka Art galerian, hilaren 28ra arte / 23

FEMINISMOA

"Interesgarria da beldurra amorru bilakatzea" / 20

Ageda Blasco Egia
Ikasketa Feministetan doktoregaia



UBANE MADERA ZANGITU

KIROLA

Europako Jiu-Jitsu Txapelketarako sailkatu da Haitz Irusta debarra, 15 urtez azpikoetan / 26



Baserriz baserriko albaitaritza zerbitzua, kinka larrian

Albaitari sektoreak bizi duen egoera larriaz ohartarazi du Debabarrenean baserriz baserri dabilen Agustin Urbieta albaitariak, txertaketa kanpaina betean / 2-3

Agustin Urbieta, txahal bat tratatzen.

EGOITZ UNAMUNO

otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus

ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA Debabarreneko mendi eta zelaetan ganadua lasai bazkatzen ikustea ohiko irudia da debabarrendarrentzat, baina, irudi horren atzean, aspalditik bere oreka mehatxatua sentitzen duen sektore bat dago, abeltzain eta baserritarrena, eta haiei zerbitzua eskaintzen dien albaitaritza zerbitzua ere egoera bertsuan da.

Gaur egun, Debabarreneko eta Gipuzkoa osoko abeltzainek erronka bikoitzari egin behar diote aurre: alde batetik, berriki Europan zabaldu den gaixotasuna –dermatosi nodularra–; eta, bestetik, landa-eremuak eta harekin batera albaitaritza zerbitzuak bizi duen egoera.

Agustin Urbietak Goikoetxea (Mendaro, 1964) Debabarreneko albaitaria egoera horren lekuko zuzena da. 1990ean hasi zen lanean albaitari, eta, 30 urtetik gorako ibilbideak ematen duen eskarmentutik, ahobizarrik gabe berba egin du BARRENArekin ganaduen txertaketa kanpainaz eta albaitaritza zerbitzuari aurreikusten dion egoera beltzaz.

Gipuzkoa, txertaketa kanpaina betean

Azken asteotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta albaitariak buru-belarri dihardute Gipuzkoako ganadu guztia txertatzen. Arrazoia da dermatosi nodularra izeneko gaixotasuna, oso kutsakorra dena. Agustin Urbietak albaitariaren esanetan, gaitz hori ez da berria munduan, Afrikan aspaldi ezagutzen zuten, baina globalizazioak eta herrialdeen arteko mugimenduek zabaldu eta ekarri dute Europaraino. "Gaixotasuna bazegoen Afrikan, baina orain arte inoiz ez genuen ezagutu Europan. Gertatu dena da mundua aldatu egin dela, eta gaur egun mugimendu handia dagoela alde batetik bestera, eta horrek dakar gaixotasunak ere zabaltea", azaldu du Urbietak.

Italian agertu, Frantziara igaro eta Katalunian detektatu ondoren, orain Euskal Herriko atarian da. Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Gobernuak hala aginduta, Nafarroako iparraldean –Iruñetik gora– eta Gipuzkoan dihardute txertatzen abelburu guztiak –44.000 Gipuzkoan–. Arrazoia geografikoa da: herrialdeok muga eta Pirinioetako pasabi-



Agustin Urbietak, txahal bat tratatzen Soraluzeko Iraola Etxebarri baserrian. EGOITZ UNAMUNO

ALBAITARITZA

Albaitarien ohartarazpena: "Albaitaritza zerbitzua egoera larrian da Gipuzkoan"

Gipuzkoa dermatosi nodularraren aurkako txertaketa kanpaina betean den honetan, sektoreak Debabarrenean eta Gipuzkoan bizi duen "egoera larria"-ren berri eman dio BARRENAri Agustin Urbietak albaitariak

dea direnez, "hesia" sortu nahi dute gaixotasuna gehiago zabal ez dadin. Urbietaren arabera, Gipuzkoan txertaketa kanpaina martxoaren lehenengo hamabostaldian amaitzea aurreikusten dute.

Gaixotasunaren ezaugarriak erreparatuta, Urbietak azaldu duenez, pertsonentzat kaltegabea bada ere, ganaduaren artean

oso kutsakorra da. Gaitza ez da zuzenean kutsatzen, bi tartekariren bidez baizik: eltxoak eta kaparrak. "Azkar ibili behar da, kontagiatzen delako eltxoen eta kaparren bitartez. Eltxoak egiten duena da birusa eraman abere batetik bestera; ziztatzean hartzen dio gaitza abere positiboari eta

sartzen dio negatiboari", zehaztu du albaitariak.

Gaitzaren ondorioz, abereei koxkor edo noduluak ateratzen zaizkie gorputz osoan –buru, lepo eta sabelean–, eta horiek lehertzen direnean kutsatze arriskua hazi egiten da, bai animalien artean, baita, esaterako, garraio-kamioietan ere. Gaitzak eragindako kalte eko-

nomikoak handiak izaten dira: gaixotutako behien esne ekoizpena izugarri jaisten da, abortuak eragiten ditu eta, kasu batzuetan, aberea hil ere egiten du.

Prebentzioa neguan, arriskua udaberrian

Txertaketa kanpaina negu garaian egitea ez da kasualitatea. Neguan, hotzarekin, eltxorik ez da, eta, horregatik, garai ona da prebentziorako eta ganadua babesteko. "Orain, neguan, eltxoa geldu dago, baina hemen beroa hasten denean eta udaberri aldean espero da berriz ere eltxoak ugaritzea. Ordurako, behintzat, animaliak babestuta egongo dira", esplikatu du Urbietak.

Gaixotasuna tratatzeko modurik ez denez, oraingoz txertoa da aurre egiteko tresna bakarra. Horrekin batera, neurri higieniko zorrotzak ezarri dituzte abeltzainen jardunean: kamioiak desinfektatu egin behar dituzte eta intsektizidak erabili ukuiluetan. Gainera, Europatik datozen protokoloak "oso gogorak" dira. Urbietak kexu da protokolo sistema horrekin: "Ustiategi batean kasu bat agertzen bada, animalia guztiak kendu behar dira. Guk ez dugu ondo ikusten neurri hori: dagoeneko ustiategi horretako eta inguruetakako animaliak txertatuta eta babestuta baldin badaude, zertan akabatu behar dira denak?". Haren ustez, neurri horiek beste garai batekoak dira eta "Europa iparraldeko herrialdeen ikuspuntu eta interesei erantzuten diete, eta ez hainbeste hegoaldekoen benetakako errealtateari".

Albaitaritza zerbitzuaren egoera, "oso larria"

Gai sanitarioaz harago, Urbietak Debabarreneko eta Gipuzkoako albaitarien egoera kezagarria dela adierazi du. 1990ean lanean hasi zenean, haren eremuan 35 albaitari ziren; gaur egun, hamar bakarrik geratzen dira, eta hiru urte barru hiru baino ez direla izango aurreikusten du. "Egoera oso larria da", ohartarazi du.

Urbietak kontaktu duenez, baserrietako albaitariaren egunerokoa ez da erraza. Alde batetik, erakundeek eskatutako aldi baterako "lan ofizialak" egiten dituzte, adibidez saneamendu kanpainak, eta horiek

10

ALBAITARI DAUDE GIPUZKOAN

90eko hamarkadan 30 albaitari baino gehiago zeuden Gipuzkoan

Gipuzkoan eta Nafarroan "hesia" sortu nahi dute, gaixotasuna zabaldu ez dadin

1990ean, Urbietak lanean hasi zenean, 35 albaitari ziren haren eremuan; gaur egun, 10



Agustin Urbietak al baitaria. E.U.

taldean, laguntza osagarriarekin eta modu ordenatuan egiten dituzte. Baina, bestetik, albaitarien eguneroko jardun nagusia dago, "klinikakoa": erditzeak, biriketako arazoak edo behe-rakoak, edozein ordutan gerta daitezkeenak. Urbietak zehaztu duenez, "momentuan etxera etortzen zara eguna amaitu duzula pentsatuz, eta handik ordubetera abisua sartzen da erditze batentzako; eta joan egin behar duzu".

Urbietaren ustez, gazteentzat bizimodu hori ez da erakargarria. Autonomo lan egiten dute, lan gogorra da fisikoki, ordu-tegi finkorik gabea eta sakrifizio handikoa. "Lan gogorra da. Erditze bat atenditzea gogorra da, eta hurrengo egunean berriro altxatu behar duzu... Gazteek nahi dituzte beste kondizio batzuk. Gu horrelaxe ohitu ginen eta jarraitzen dugu, baina gazteek ez dute hori nahi", azaldu du. Gaur egun, "gazte askok ikasten dute Albaitaritza eta oso ondo jarduten dute. Askok emakumezkoak dira, eta

jendea oso gustura dago eurekin, baina kanpainetan bakarrik jarduten dute". Urbietaren ustez, "sistema antolatuago baten faltagatik".

Eremu handiak eta guardia neketsuak

Albaitari kopurua gutxitu ahal, estali beharreko eremua handitu egin da. Urbietak orain bakarrik egiten du lan bere eremuan, nahiz eta asteburuetan beste bi lankiderekin txandatzatzen den guardiak bermatzeko: "Bakarrik geratu naiz nire zonan, eta beste bi albaitarierekin elkartu naiz. Hiruron artean egiten ditugu aste bukaerako guardiak, eta tokatzen zaigu lan egitea hiru astean behin".

"Egoera oso larria da. Hiru-lau urte barru, nork atendituko ditu baserritarrak?"

Gaur egun, Urbietak hiru-lau bailara atenditzen ditu: "Hasi Debabarrena, Debagoiena, Urola, Urola Kosta... Gatzagatik Aiara". Haren esanetan, albaitari lana gogorra da fisikoki eta mentalki: "Oso gogorra da. Egun batean tokatzen zaizu, agian, abisua Aretxabaletatik eta egun berean, agian, beste bat Aiako baserri batetik. Ekonomikoki zerbitzu asko ez dira errentagarriak, baina egin egiten ditugu. Bidean ematen dugun denbora kobratuko bagenio, zenbat kobratu beharko genioke baserritarrari?".

Administrazioaren ardura

Urbietaren ustez, administrazioak esku hartu beharko luke lehenbailehen: "Administrazioak antolatu behar luke zer bait albaitarien sektorean, gauza asko ez baitira errentagarriak, baina zerbitzu hori eman egin behar da. Esaterako, Aldundiak antolatuko balu errelebo sistema bat albaitari gehiagorekin, albaitari bakoitzak ordutegi mugatuagoa izango luke, lana egingarriagoa izango litzateke eta gazteentzat ere erakargarriagoa. Dagoeneko berandu gabiltza".

Urbietaren ikuspegitik, jokoan dagoena ez da albaitaritza zerbitzuaren jarraipena bakarrik, baserri-munduen biziraupena baizik. "Esplotazio asko desagertzen ari dira. Joera da esplotazio oso txikiak, hiru-lau ganadu dituztenak, bajatzea eta kontzentratzea gehiago. Zer nahi da, hiru esplotazio handi geratzea eta beste denak pikutara joatea? Euskal Herrian dugun baserri tradizio eta mendietako paisaia guztiak galtzea? Mendiak zikindu egingo dira dena lagata", ohartarazi du Urbietak, etsipen puntu batekin.

Agustin Urbietak 30 urtetik gora daramatza Debabarrenean baserriz baserri, eta, hiru urte barru jubilatzeke asmoa duen arren, etorkizuneko erreleboaren ardura daroa aldean. "Egoera larria da. Hiru-lau urte barru nork atendituko ditu Gipuzkoako baserritarrak? Zerbitzu hori mantendu egin behar da, bestela baserri mundua pikutara joango da eta".

Ganaduen txertaketak gaitza gelditu egingo duela aurreikus liteke, baina, Urbietaren arabera, albaitaritza zerbitzua bera da kolokan izango dela laster, neurririk hartzen ez bada.



Oiloak Debabarreneko baserri batean. E.U.

ALBAITARITZA

Protokoloak eta neurri sanitarioak gainerako etxe-abereentzat

Hegaztiak, ardiek, zaldiek, untziek eta txerriek ere osasun-protokolo propioak dituzte

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Ekoizpena bideratutako gainerako abereen artean gaixotasunak ugaitu egin dira. Horren harira, instituzioek ustiatzei ezarritako osasun-protokolo eta prebentzio neurriak geroz eta zorrotzagoak dira.

Hegaztiak kanpora ateratzeko debekua indarrean

Hegazti-gripearen (*influenza*) mehatxuak bere horretan jarraitzen du. Otsaila hilabete kritikoa da, migrazio bideak direla eta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak neurri prebentiboak indartu egin ditu. Azaroa ezkerro jabeek debekatuta dute oiloak, oilaskoak, ahateak eta bestelako hegaztiak kanpoan elikatzea basa-hegaztiak sarbidea duten guneeetan. Debe-ku hori indarrean da oraindik.

Mihi urdinaren aurkako txertoa

Hausnarkari txikien kasuan – ardiak eta ahuntzak –, mihi urdinaren gaitzaren aurkako txertaketa kanpainak martxan jarraitzen du. Azken urteetan, eltxoek transmititzen duten gaixotasunaren aurkako protokolo hori ohiko bihurtu da ustiatzei askotan.

Ustiatzei ezartzen dizkieten protokolo eta prebentzio neurriak geroz eta zorrotzagoak dira

Mugimenduen kontrola zaldietan

Zaldien kasuan ere badira hainbat gaixotasun; esaterako, zoonosia, zeina gizakiengana ere igaro daitekeen. Hala, kirolerako zein haragitarako zaldiek osasun-ziurtagiri eguneratuak behar dituzte edozein feriatara edo lehiatara joateko.

Higiene neurriak untzien haztegiatan

Untzien kasuan, hemorragia birikoaren aurkako txertaketa estandarra da neurririk eraginkorrena, eta Aldundiak higie-nebaldintza zorrotzak eskatzen dizkie ustiatzei komertzialei.

Txerriak, basurdeengandik aparte

Gaur egun, txerri izurri afrikarra da txerrientzako mehatxurik handiena. Gaixotasun biriko hori oso kutsakorra da eta hilkortasun-tasa handia du txerrien artean. Indarrean diren protokoloen arabera, Gipuzkoako ustiatzei guztiek –izan tamaina handikoak edo familiarrak– kontrol epidemiologiko zorrotzak gauditu behar dituzte.

Prebentzio-neurri nagusia basurdeen eta etxeko txerrien arteko kontaktua erabat saihestea da. Horregatik, debekatuta dago txerriak aske edukitzea itxitura bikoitzik gabe, basa-animaliekin isolamendua bermatu ezean.


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Nekagip' ataria.

OSASUNA

"Ez nau harritu edari energetikoen salmenta mugatzeko erabakiak"

IGOR HORRILLO EHU-KO FARMAKOLOGIA SAILEKO IRAKASLEA

Edari energetikoen gehiegizko kontsumoak haurrengan eta nerabeengan sor ditzakeen kalteez ohartarazi du Farmakologia irakasle Igor Horrillok



Igor Horrillo, unibertsitateko laborategian. ELKARRIZKETATUAK UTZITAKO ARGAZKIA

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Edari energetikoen kontsumoak gora egin du esponenzialki, bereziki nerabe eta gazteen artean, eta kontsumoa mugatzeko neurriak aztertzen hasiak dira zenbait herrialdetan. Espainiako Gobernuak ere hala egingo duela iragarri du. Asteazkenean eman zuen albistea Pablo Bustinduy Espainiako Kontsumo ministroak. 16 urtez azpikoei edari energetikoak saltzea debekatuko dutela aurreratu zuen, bai eta debekua 18 urtez azpikoetara zabalduko dutela ere 100 mililitroko 32 miligramo kafeina dituzten edarien kasuan. Era berean, osasuntsuak ez diren elikagaien iragarkiak arautzeko neurriak ere hartuko ditu Madril.

Kafeinaz eta karbohidratoez gain, bestelako hainbat substantziaz osatutako alkoholik gabeko edariak dira *energetiko* izenarekin ezagutzen direnak, errendimendu fisikoa hobetzeko, nekea arintzeko eta arreata hobetzeko saltzen direnak. Dituzten osagaiengatik, baina, haiek kontsumitzeak eragin kaltegarriak izan ditzake, bereziki haurrengan eta nerabeengan, eta ondorio horiez galdetu dio BARRENAk Igor Horrillori (Mendaro, 1979). EHUko Farmakologia Saileko irakaslea da, eta Komunikazio, Berrikuntza eta Gizarte Hedapenerako dekanordea.

Nola hartu duzu 16 urtez azpikoei edari energetikoak debekatzeko Espainiako Gobernuaren erabakia? Ez nau harritu edari energetikoen salmenta mugatzeko erabakiak.

Egia esan, espero genuen, hitzaldi eta jardunaldietan sarri entzun dugun kontua delako. Aspaldiko eskaera bat izan da, eta bagenekien luze gabe iritsiko zela. Evidentzia zientifikoek erakusten dute edari energetikoak mehatxu bat direla; beraz, erabaki zuzena iruditzen zait. Beste herrialdeetan ere egin beharko lukete, baina zaila gertatzen da halako kontuak arautzea. Normalean gizartearen duten eraginaren arabera, estuagoa edo malguagoa izaten da araudia. Baina, hala ere, arautzea zaila izaten da, ekonomiari eragiten dioten kontu guztietan bezala. Erraz aurreikusten ditugu kalte ekonomikoak, baina osasun kalteak usaintzeko ez gara gai; betikoa. **Zer ezaugarri dituzte edari energetikoak?**

Batez ere, kirolariek hartzeko daude pentsatuta, kirola egin aurretik edo ondoren hartzeko, eta horregatik dute, adibidez, kaloria asko azukre gisa, azukreak energia azkarra eta berehalakoa ematen dielako, eta, gainera, giharretako zuntzak azkarrago errekuaratzeko ahalbidetzen dielako. Edari goxoak izaten dira, normalean, eta horrek badu beste helburu bat ere: populazio gaztea erakartzea. Era berean, edari horiek dituzten bitamina eta mineralak ere kirola egitean azkar erretzen diren mantenugaiak osatzeko izaten dira. Askotariko osagaiak izaten dituzte, baina, normalean, kafeina eta taurina izan ohi dira beste bi osagai nagusiak. Kafei-

na psikoestimulatzailea da, eta frogatuta dago gure muskuluen errendimendu energetikoa handitzeko ahalmena duela. Kontua da gaur egun edozeinek hartzen dituela edariok, eta edonoiz. *Red Bull te da alas* esaten zaigu. Gazteak erakartzeko mezuak dira, eta mezu horrek iradoki nahi dutena da edari energetikoak hartzeak askeago egiten gaituela eta pentsatzeko ahalmena handitzen digutela. Eta bai, egia da kafeina hartzeak arreata areagotzen duela, baina ez du gure gaitasun kognitiboa handitzen; ez gaitu argiagoak egiten.

Noiz dira kaltegarriak eta norentzat? Alkoholarekin nahasten ez diren heinean, edari energetikoen kontsumoa ez da arriskutsua pertsona heldu osasuntsuendako; betiere, jakina, egunero hartzen ez badira. Izan ere, kafeina kantitate handia duten edariak dira, eta gomendatutako eguneko dosia gainditzeko probabilitatea asko handitzen da haiek hartuta. Oso bestelako kontua da, baina, nerabeengan. **Zertan eragiten die nerabeei?** Nerabezaroan nerbio-sistema zentralari eragiten dion edozein

substantzia hartzeak eragin zuzena dauka garunaren garapenean. 21-23 urte bete arte, garuna garatzen ari den organo bat da, eta garapen horri eragiten dioten substantziak hartzeak, izan alkohola -nerbio sistemaren depresioa eragiten du- edo izan kafeina -nerbio-sistema zentrala estimulatu du-, kalte egin diezaike. Ez dira urte asko edari energetikoak merkatura zirenetik, baina ikusten ari gara haien kontsumoak antsietatea eta lo egin ezina eragiten dituela nerabeengan, eta epe luzera arriskua izan dezakete osasun mentaleko arazoak garatzeko. Normalena litzateke larunbata iritsi eta nerabe batek eguerdira arte lo egitea, baina hori galtzen ari da. Haurrentzat eta nerabeentzat ez ezik, emakume haurdunentzat ere kaltegarria da kafeina gehiegi hartzea. **Zenbat azukre eta kafeina dute edariok, bada?**

Markaren arabera aldatu egiten da hori, eta zaila da zehazten. Kafeinari dagokionez, hiru-lau kafe kolpera hartzea beste litzateke edari energetiko bat hartzea. Azukre kantitatean ere aldea dago marka batetik bestera, eta gauza bitxiak ere ikusten dira. Adibidez, badira merkaturatzen azukre gabeak, eta hori zentzugabea da, azukrerik gabeko edari energetiko bat ezin delako ulertu. Nolanahi ere, azukre asko dute, baina Coca Colak beste.

Azukre eta kafeina kontzentrazio handia da, hortaz, arazoa.

Bai. Ikuspegi toxikologikotik, edari energetiko bat hartzeak ez dakar arriskurik, baina egia da kafeina kantitate handietan hartzeak bihotza azkartzen duela, eta, beraz, gaixotasun kardibaskularrak dituztenengan edota izateko arriskua dutenengan kaltea eragin dezakeela epe luzera. Ez dakigu egunean bi edari energetiko hartzeak bost urteko epean zer eragin izango duen, nahiko gauza berria direlako oraindik hemen, baina Ameriketako Estatu Batuetan eta Europa iparraldeko herrialdeetan ari dira ondorioak ikusten, kontsumoa handiagoa delako. Freskagarriekin ere antzera gertatzen da. 2018an, hemen, arraroa egiten zitzaigun haur bat Coca Cola edaten ikustea, baina AEBetan oso zen ohikoa. Hemen, duela gutxira arte, oso aldiari behingo ospakizunetan baino ez genituen ikusten haurrak Coca Cola edaten, eta, gehienez ere, baso bete. Eta ez zen ez zeudelako, orduan ere orain bezain bistara izaten zirelako dendetan eta, baina beste ardura bat zegoen. Aldaketa kultural handia gertatu da.

Zer gomendatzen duzu? Iruditzen zait gurasoek ardura handiagoa hartu beharko luketela zeinbat produkturen kontsumoa mugatzeko. Eta ez naiz edari energetikoei buruz bakarrik ari. Freskagarriekin eta litxarreriekin gauza bera gertatzen ari da. Kontzientzietan eragin beharko genuke, pedagogia egin.

"Edari energetikoak kontsumitzeak antsietatea eta lo egin ezina eragiten die nerabeei"

Arantxa Urretabizkaia, *Zahartzaroaren maparen bila* liburua aurkeztu zuen egunean. ELKARRIZKETATUAK LAGATAKO ARGAZKIA

♀ MARTXOAREN 8A

"Ni zaharra naiz, eta ez dut ulertzen zergatik ezkutatu behar dudan"

ARANTXA URRETABIZKAIA IDAZLEA

'Nola zahartu nahi dugu?' izenburuko hitzaldia emango du martxoaren 4an, Mendaron, 18:30ean

Ainara Argoitia MENDARO

Zahartzaroaren maparen bila saiakera idatzi du orain azkena Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947), zahartzaroari buruzko hausnarketa. Zahartzeko eredua aldatu denez, zahartzeko maparik ez dagoela dio eta, lehen ez bezala, orain, aukeratu egin dezakegula nola zahartu nahi dugun.

Gertatzen zaigu: umetan zahar ikusten genituenen adinera iritsi, eta gazte ikusten dugu geure burua. Noiz hasten da zahartzaroa? Nazio Batuen Erakundearentzat, 60 urterekin. Norberak ikusiko du hori, baina zahartu egin garela antzemateko arrasto batzuk aipatzen ditut liburuan. Adibidez, gazteen kontra gauzak esaten hastea. Oso seinale

larria da belaunaldi gazteak gu baino okerrago ari direla pentsatzea. **Kargu hartu izan digute noizbait zahar etxe idazteagatik. Zer da zaharra?**

Bai, eta zaharrak trapuak eta trasteak direla esango dizute halakoetan, ezta? Bakoitzak jar diezaiola bere buruari nahi duen izena, baina ni zaharra naiz eta ez dut ulertzen zergatik ezkutatu behar dudan, ez eta zergatik disimulatu behar dudan ere.

Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeko? Gizartearekiko geneukan paradigma aldatu egin zelako duela mende erdi bat. Ordura arte, helduaroa zen bizitzaren gailurra eta gazteek merituak egin behar zituzten pertsona serio gisa hartuak izateko. Ge-

rozitik, bizitzaren gailurra gartzaroa da, eta handik aurrerakoa, amildegirako bidea. Orain, gazte da on, eta zaharra da txar. Beste alde batetik, uste dut *zahar* hitza ez dela *viejo* hitza bezain gordina. Dena den, zer uste duzu esan beharko geniokeela zahartzaroan dagoenari haurtzaroan dagoenari haurra esaten badiogu, gartzaroan dagoenari gaztea eta helduaroan dagoenari heldua? *Zahar* hitza tabu bihurtu dugu, eta hor ari gara, borondate onenarekin, gero eta izen absurdoagoak sortzen, *hirugarren adinekoak* eta. *Silver target* da irakurri dudana azkena. Nork bere bideak topatzen ditu *zahar* horri iskin egiteko, baina niri alferrikakoa iruditzen zait ahalgin hori.

Kultura batzuetan oraindik miresmena zor zaie zaharrei. Nolatan onartu dugu guk hain erraz paradigma aldaketa hori?

Ez dakit. Nik 1968an kokatzen dut paradigma aldaketa hori, oso data seinalatuan. Ordutik, hemen ari gara, teatroa eginez eta gauza absurdoak esaten; adibidez, emakume bati ezin zaiola sekula adinari buruz galdetu. Zaharra naizela esaten dudanean eta loreak bota nahi dizkidatenean zera esaten didate: "Bai, zaharra izango zara, baina zure ideiak gazteak dira", onak direla esan beharrean. Baina ez, nire ideiak nire belaunak eta aldakak bezain zaharrak dira, eta izan daitezke onak edo txarrak. Gertatzen dena da gizadiaren historian lehen aldiz

belaunaldi oso batek erraz gainditu duela 80 urteko adin-muga, zientziari esker, eta tarte horretan bizitza hainbeste aldatu da, ezen ezin den zahartzeko modu tradizionala garatu. Eta nik ez diot ezer esango zahartzaroa modu tradizionalan bizi nahi duenari, ezpada zorte ona opa. **Zeintzuk dira deusezta beharko genituzkeen topikoak?**

Zaharrak umetu egiten diren ustea da kaltegarrienetako bat, haurra, definizioz, beste norbaiten mende dagoena delako. Eta beste uste oker bat litzateke pentsatzea zahartzeko jakintsu egiten gaituela. Zuen ilusioa zapuztea izango da, beharbada, baina gezurra da.

Zaharra ez da izandakoa luzaroan dena baizik, kantatzen zuen Mikel Urdangarinek, eta horixe esatera zetorrelakoan geunden: gaur baino argiagoak izango garela bihar.

Ez, ba.

Zerk haserretzen zaitu?

Bereziki, erakundeetatik iradokitzen dutenak: zaindu beharreko jendea garela zaharrok. Bai, bale, zainduak izan nahi dugu, eta geuk nahi dugun moduan zainduak, gainera, baina beste edozein adinetakoek nahi duten bezalaxe. Giza eskubideak ez dira iraungitzen adinarekin; hil arte dagozkigu. Behin adin batera ezkerro, gizarteak zera esaten digu: "Deskantsatu egunean 24 ordu eta astean zazpi egun, eta ondo pasa, baina egizu hori guztia erabakiak hartzen diren lekuetatik kanpo; erabakiak hartuko dituzte beste batzuek zure onerako". **Zein litzateke zahartzeko eredu berria?**

Ez dago orokortzerik, baina esango nizuke zaharrok ikasi egin nahi dugula. Zahar tradizionala irakasteko zegoen, txapa sartzeko inguruan zuen belarriari. Oraingo zaharrok ez gara atzera begira bizi; aurrera ere begiratu nahi dugu. Gutxieneko pentsioa bera nobedadea da. Lehen ez zegoen hori. Orain, pentsio batzuk eskasak dira oso, baina ez dago pentsiorik jasotzen ez duenik. Tira, bat bai, Juan Carlos Espainiako erregeak esan baitu bera dela Espainia osoan pentsioa jasotzen ez duen bakarra. Jakituria transmititzeko modua ere aldatu egin da, eta ez naiz bizi esperientzia transmititzeaz ari, ezpada ofizio bat irakasteaz. Lehen, zaharretik gaztera transmititzen zen eza-gutza; orain, behetik gora ere asko.

Pentsioak eta eskubideak aipatu dituzu. Zahar asko dabilza borrokan.

Bai, eta zahar horien artean ikusten ditut ikastolak sortu zituztenak, alderdi politiko klandestinoetan parte hartu zutenak... ikusten ditut beste bizipen bat dutenak, ikasi dutenak bizitzan zehar zer egin behar den norberaren eskubideak eta gizartearenak defenditzeko. Motxila hori duten zaharrak dira; izan ere, badi-rudi batzuetan zahar guztiak berdina garela, eta ez; ez gara, gazte guztiak berdina ez diren bezala.

Ez dugu hil nahi; ez dugu zahartu nahi; gehienez ere, jubilatut egin nahi dugu. Zer barneratu beharko genuke?

Gizartea aldatzeak eman digula lehen ez genuen aukera bat, eta orain aukeratu egin dezakegula, nork bere ahalmenen arabera, nola zahartu nahi dugun. Zahartzaro tradizionalan dena zegoen arautua. Orain, ez.

Herriz herri ari zara hitzaldiak egiten. Zer profiletako jendea inguratzen zaizu? Eta zergatik dela uste duzu?

Emakumeak, gehienbat, baina bestelako hitzaldietan ere hala izaten da. Unibertsitatean azkena egin nuen hitzaldi batean emakumeak izan nituen entzuleen %90, eta galdetu nien: "Non daude zuen adinkide gizonetakoak?". Eta gizon batek erantzun zidan: "Kanposantuan". Izan daiteke hori, gazteago hiltzen direla batzuk, baina emakumeok eta, modu nabarmen batean behin adin batera ezkerro, ikasi egin nahi dugu. Gertatu izan zait beste hau ere: gizon bakan batzuk izan aretoan eta galdera-erantzunen tartean haiek bakarrik hartzea hitza, eta, askotan, gainera, ez jakin-minez, baizik eta txapa sartzeko.

Gaia zahartzaroa izanda, izan daiteke, baita ere, emakumeok behartuago sentitzen garelako zahartzaroa disimulatzea?

Bai, bai. Baina gero eta gizon gehiago jausten dira tranpan.

"Giza eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen; hil arte dagozkigu"

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOAK

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Barrena[!]

BATZEN GAITUEN
DISTANTZIA

0
km



HEDABIDEKIN
ERE BAI

NIRE USTEZ

Otsailaren 27a: Saharar Errepublikak 50 urte



JUANTXO DÍEZ

KOMITE INTERNAZIONALISTAK TALDEKO KIDEA

Gaur, otsailak 27, 50 urte betetzen dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zenetik. Urteurrena dela eta, Euskadiko Saharar Ordezkaritzak egindako mozioa aurkeztu du EAJk Ermuko Udalaren osoko bilkuran. Bertan, hurrenez hurren, Herri Sahararraren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen da, eta Espainiako Gobernuari zein Europako Batasunari eskaera egiten zaie NBEk agindutako autodeterminazio erreferenduma gauzatzeko neurriak har ditzaten. Mozioa onartua izan da EAJren, Elkarrekinen eta EH Bilduren botoei esker. PSEk, aldiz, kontra bozkatu du, Ermuko herrian betidanik izandako Herri Sahararrekiko elkartasunari bizkarra emanez. Izan ere, hau ez da Ermuko Udalak onartzen duen lehenengo mozioa. Duela 10 urte, SEADen 40. urteurrenarekin batera, Ermuko Udalak antzerako mozio bat onartu zuen adierazpen instituzional batean, udalbatzako zinegotzi guztien sostenguarekin, PSEkoenak barne.

180 graduko aldaketa hau ulertzeko, 2022. urtean Pedro Sanchezek diktadura marokorren interesen alde hartutako posizio ofizial berria hartu behar dugu kontuan. Horren arabera, Espainiako Gobernuak onartzen du Mendebaldeko Sahararen subiranotasuna Marokori dagokiola, NBEk ezarritakoa ukatuz. Beatriz Gamizen udal talde sozialistak nahiago izan du Herri Sahararrari egindako traizioagatik Espainiako Gobernuarekin kritiko ez agertzea, sahararren eskubideen alde egitea baino.

Espainiaren rola funtsezkoa da Saharako gatazkan. Potentzia koloniala izanik, erantzukizun berezia du NBEk agindutako deskolonizazio prozesuan. Horregatik, bere jarrera erreferentea da nazioartean. Gauzak horrela, Pedro Sanchezek Marokoren plana onartzeak ondorio zuzena izan du Europako Batasunean eta NBEn. Hala, bere Segurtasun Kontseiluak joan den urrian onartu zuen Marokoren autonomia plana, Espainiako Gobernuak lehenago egin bezalaxe.

Horrexegatik da hain garrantzitsua Euskal Herriko eta estatu espainiarreko gizartearen elkartasuna indartzea Gobernu Sahararren aldeko posiziora itzularazteko, eta PSOE barruko militantek eta kargu politikoei egin dezaketen ekarpena funtsezkoa da.

Tamalez, Ermuko PSEk ez du behar den ausardiarik izan –edo, agian, kontzientzia falta kontua da–. Sahararen alde daudela diote errefuxiatuentzako laguntza humanitarioa ematen dutelako, baina laguntza hori beharrezkoa egingo ez lukeen konponbide demokratikoari uko eginez.

GUTUNAK

Lurrera itzultzea: heriotzaz, duintasunaz eta naturarekin dugun harremanaz

AMAIA ZINKUNEGI ZIPITRIA

DEBA

Ez da erraza heriotzaz hitz egitea. Are gutxiago, gure gizartean, non heriotza ahalik eta gehien ezkututzen saiatzen garen: ospitaleen hormen atzean, protokoloen artean, edo isiltasunean. Hala ere, denok dakigu noizbait iritsiko dela.

Azkenaldian, gero eta gehiago pentsatzen dut horretan: zer gertatzen zaigun hiltzen garenean, eta, batez ere, momentua heltzean, zer gertatzea nahi nukeen nire gorputzarekin. Ohikoa da, gaur egun, hildakoa kutxa batean sartu, materialez inguratu eta lurperatzea edo erraustea.

Gure arbasoek, ordea, ez zuten horrela ulertzen. Lurra ez zen hondakinak ezkutatzeko lekua, bizitzaren jatorria eta helmuga baizik. Gorputza naturari itzultzeko zerbait zen. Ziklo baten parte: jaio, bizi, hil, eta berriz bizi beste forma batean.

Ez dut heriotza idealizatu nahi, baina uste dut zilegi dela galdera egitea: zer gertatuko litzateke gure gorputzak lurrean, zuzenean, deskonposatzen uzteko aukera izango bagenu, produktu kimikorik gabe, hormigoirik gabe?

Munduko hainbat lekutan jada badira halako

esperientziak: lurperatze naturalak, baso-hilerriak, gorputza lurriari itzultzea helburu duten praktika jasangarriak. Erresuma Batuan, adibidez, baso-hilerri naturalak ohikoak dira, eta bertan gorputzak zuntz naturaleko oihaletan edo material biodegradagarrietan lurperatzen dira, inolako produktu kimiko eta hormigoirik gabe. Herbehereetan ere badaude *natuurbegraafplaats* izeneko guneak, non paisaia bera bihurtzen den memoria. Ez dira erritual exotikoak, baizik eta hausnarketa baten ondorio.

Hemen, ordea, aukera hori ia ez da existitzen. Ez legeak, ez ohiturak, ezta eztabaidak ere. Eta, agian, garaia da galdera egitekoa, lasai baina irmo: zergatik ez?

Ez da inor konbentzitzeko kontua. Ez da inor derrigortzeko proposamena. Aitzitik, aukerak zabaltzearen aldeko deia da. Bakoitzak bere bidea aukeratu dezan.

Nik lurrarekin bat egin nahi nuke, bertara itzuli, huts-hutsik. Zuk?

BARRENA

L.I.J.

DEBA

Urteak dira Debabarreneko komunikabideak beren artean hitz egiten hasi zirela bailarako komunikabide amankomun bat lortu nahian. Garai hartan, gertutik bizi izan nuen ideia hura. Eta denbora luzez isilduta egon ondoren, 2025eko abendutik, hemen daukagu proiektu honen fruitua: BARRENA,

Debabarreneko herri gehienak biltzen dituen astekaria.

Niri, mendaroar modura, bailarako partaide sentitzen laguntzen didan komunikabidea da BARRENA. Orain, inoiz baino gertuago sentitzen ditut nire ondoko herrietan gertatzen diren gertakizun eta ekintzak. Orain arte, urrunago sentitzen nituen nik Ermuan, Mallabian edo Soraluzen gertatutakoak. Baina orain gustura irakurtzen ditut ostiralero herri hauen berriak. Horregatik bakarrik merezi izan du egin duzuen esfortzu eta lan guztia dena bateratzen. Nire herriko kontakizunetatik at hor kanpoan badiarelako mila kontu interesgarri. Eskerririk asko hau guztiau posible egiten duzuenoi. Zorionak eta urte askotarako, BARRENA!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **BARRENA** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,
Alex Turrillas, Ander Gomez,
Asier Orbea, Dorleta Vidal,
Egoitz Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta,
Ubane Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kideak eta banaketa

Alex Turrillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Errakokate 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errakokate 16, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.000 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOA
Foru Aldundia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

NONDIK NORA

"Italiako bizimoduarekin alderatuta, Ermuak aukera ugari eskaintzen ditu sozializatzeko"

ANDREA GIAMBRONE ITALIARRA ERMUAN

Dorleta Vidal ERMUA

Duela urtebete pasatxo heldu zen Ermura Andrea Giambrone (Italia, 1982). Autoz egin zituen Italiako iparraldean dagoen Renateren eta Ermuaren arteko 1.300 kilometroak, aldean lagunak, gurasoak eta txakurra zituela. Erabaki zaila izan arren, ez da damu, eta haren hitzetan eta jarreraren bizipoza sumatzen da.

Nolakoa da Renate, zure herria?

Italiako iparraldean dagoen herri txiki bat da, Milandik eta Monzatic gertu. 3.500 bizilagun inguru ditu, eta, polita den arren, ez dauka inolako zerbitzurik. Saltokiak ixten joan dira eta gaur egun taberna pare bat bakarrik daude zabalik, dendarik ez. Edozer gauza egiteko autoa behar duzu.

Zer dela-eta ezagutu zenuen Ermua?

Nire lagunik onena hona etorri zen bizitzera 2018an, eta 2021ean bisitan etorri nintzen lehen aldiz. Garai hartan ez nengoen gustura Italian, bakarrik sentitzen nintzen. Izan ere, han beste bizimodu bat dago, jendea ez da kanean egoten, eta gutxitan elkartu zaitezke lagunekin. Lan egitea da lehentasuna han, dirua irabaztea.

Eta zer gertatu zen aipatu duzun lehen bisita haren ondoren?

Gero eta sarriago etortzen hasi nintzen, eta, azkenean, hona bizitzera etortzea erabaki nuen. Dena den, ez zen erabaki erraza izan, hiru urte eman nituen horretan pentsatzen. Italian neukan bizitza guztia: margo eta pladur enpresa aitarekin erdi bana, familia, lagun gehienak, etxebizitza... eta hemen hutsetik hasi behar nuen. Baina tira, aurrera egitea erabaki nuen.

Gogoratzen duzu zure lehen eguna Ermuan?

Bai; 2024ko abenduaren 9an heldu nintzen, hemen geratzeko. Nire laguna neska-lagunarekin etorri zen Italiara nire bila, eta haiekin eta txakurraekin etorri nintzen autoan. Gure atzean, aita eta ama, nire trastez betetako furgoneta handi batean. 05:00etan irten ginen eta 19:00etan heldu Ermura. Hemen euri-jasa izugarria ari zuen, eta zoramena izan zen. Gainera, gurasoei ez zitzaientzatzen nire erabakia, eta ez zen une erosoia izan. Orain, aldiz, gurasoak lasai daude, pozik ikusten nautelako.

Kostatu egin zaizu hemengo bizimodura egokitzea?

Ez asko, egia esan. Hasieran, arazoak izan nituen lana topatzeko, eta margolari eta zerbi-

tzari lanetan jardun nuen, besteak beste. Iazko irailean laneko arropa eta serigrafia denda baten funtzionamendua ikasten hasi nintzen, eta urtariletik aurrera nik hartu dut dendaren ardura. Lokala berriztatu, eta urtarrilaren 12an zabaldu nuen.

Eta nola hartu zaituzte ermuarrek?

Oso-oso ondo. Hemengoak laguntzeko prest egon dira beti, eta oso gustura nago. Ermua leku eroso da bizitzeko, dena dago eskura, sozializatzeko aukera ugari daude, eta asko gustatzen zait plaza umez beteta ikustea egunero: Times Square dirudiela pentsatzen dut beti! Renateko plaza, aldiz, hutsik egoten da beti.

Hemengo ezerk harritu zaitu?

Edozein egunetan kalera irten eta lagunekin elkartu zaitezkeela, aurretik hitzordua lotu barik. Bestalde, hemengo ordelegiek harrituta utzi naute! Oso berandu bazkaltzen eta afaltzen da! Zaila izan da ohitzea, baina erritmoa hartuta daukat.

Eta eguraldia antzekoa da?

Bai, baina hemengoa epelagoa da. Italian hotz handiagoa egiten du neguan, eta bero handiagoa udan. Aldiz, esango nuke hemen hezetasun handiagoa dagoela.

Zer diozu gastronomiari buruz?



Urtarrila ezkerre, laneko arropa-denda dauka Giambronek Ermuan. D. VIDAL

Egia esan, orain arte Italian bezala jan izan dut: pasta, pizza, okela... Azkenaldian hasi naiz babarrunak eta dilistak kozinatzen, eta gustura jaten ditut.

Badaukate antzik hemengo pizzeak eta Italiakoak?

Ez, inondik inora! Nik etxean egiten dut masa, italiar erara, eta topatu dut pizzeria bat Bilbon Italiako pizza bertsuak egiten dituen, goxo-goxoak!

Zer egiten duzu aisialdian?

Lagunekin egon, txakurraekin ezagutzera joaten naiz sarritan, eta asko gustatzen zait Lekeitio. Bilbo ere gustatzen zait, Donostia, Iruñea... baina txoko asko ditut oraindik ezagutzeko.

Oso ondo moldatzen zara gaztelaniaz...

Ermura etorri baino lehen eskolak hartu nituen bi hilabetez, baina ganorarik gabe, egia esan. Gaur egun, dena ulertzen dudan arren, hitz egitean akatsak egi-

ten ditut aditzekin. Euskaraz, aldiz, ez dut ezer ulertzen: lau hitz esan ditzaket.

Hemen zaudenetik, Italiara bueltatu zara?

Bizpahiru bider joan naiz, han utzi nituen gauzak kudeatzen bukatzeko. Urrian joan nintzen azkenengoz, eta maiatzaren erdialdean joango naiz berriro, ezkontza batera. Hangoak ere bisitan etorri dira: gurasoak, lehengusuak eta lagun batzuk, eta pozik hartzen ditut datozen guztiak.

Zerbaiten falta sumatzen duzu?

Gehienbat, lagunak eta familiaren falta sentitzen dut, baina emozio eramangarria da, eta uste dut erabaki zuzena hartu dudala.

Etorkizunean, uste duzu Ermuan bizitzen jarraituko duzula?

Gaur-gaurkoz, baietz esango nuke, baina, hala ere, onartu beharra daukat ez naizela geldiegitokoa.

"Gurasoei ez zitzaientzatzen nire erabakia; orain, lasai daude, pozik nagoelako"

"Kostatu egin zait jateko ordutegietara ohitzea, baina erritmoa hartuta daukat"



Nano txakurraekin. A. G.



Lagun batekin, Milango katedralean. A. G.

Eguenetako saltzaileak pozik daude kokaleku berriarekin

Anbulatorio berria egiteko obren ondorioz merkatu plaza itxi egin zuten urtarrilean, eta ordutik Aita Agirrera lekualdatu dituzte eguenetako saltzaileak. Bada, kokapen berriarekin pozik daude guztiak

Ainhoa Andonegi

Urtarrilaren 16an itxi zuten merkatu plaza, eta, ordutik, Aita Agirreren egoten dira eguenetako saltzaileak. Udalararekin adostuta erabaki zuten kokaleku berria, eta eguenetako azoka txikiaren ondoan jartzea abantaila izango zela iritzita aukeratu zuten leku hura. Hilabete pasa egin dute dagoeneko leku berri hartan, eta saltzaile guztiak iritzi berekoak dira: aldaketa lehenago egin behar zela uste dute.

Pergola azpian, hotz

Musika Eskolako pergola azpian aurkitu ditu BARRENAk Mari Karmen Larrañaga eta semea, Migel Anjel Etxeberria. Pozik daude, jendea pasatzen delako handik, eta, horri esker, lehen merkatu plazara joaten ez ziren bezero berri asko joaten zaizkielako orain. Hala ere, leku horrek baditu gabeziak ere; izan ere, haizetsua da gunea. "Bizkarreko aldetik haize hotza etortzen zaigu, sekulako korrontea dago hemen, eta itoginak ere baditugu", esan du Etxeberriak. "Salmentarako, bestela, askoz leku hobea da, baina eskertuko genuke atzeko aldea itxi egingo balute, nolabait; neguko egun hotzetarako, behintzat". Postua bera tamainaz ondo dago, jendearen bistara daude, eta salmentetan gora egin dutela igarri dute. Alde horretatik, beraz, pozik daude. Azpeititik etortzen dira, Loiolako Txanton baserritik. 88 urte ditu Mari Karmenek, eta orain dela 56 urte hasi zen Elgoibarko azokara etortzen. Gurasoak ere

azoketan ibiltzen ziren baserriko uzta saltzen, eta haiekin hasi zen Mari Karmen sektorea ezagutzen, neska gaztea zela. Gurasoek erretiroa hartu zutenean, aitak Elgoibarrerako bidea zabaldu behar zutela esan zien. Hasieran, erreparoa ematen zien, baina nebarekin etorri zen, estreinakoz, 1970eko Errege egunaren biharamunean. Hura hil zenetik, semearekin etortzen da eguenero, hutsik egin gabe. Azpeitiko azokara joaten dira astearteetan, Elgoibarrera ostegunetan eta Azkoitira zapatuetan. Barazkiak eta landareak saltzen dituzte, eta elgoibartarrak bezero onak dira adierazi dute: "Merkatu plazan ez geunden ondo, eskailera asko zegoen eta jendeak etortzeari laga zion. Baina, bestela, erosle ona da elgoibartarra".

Arkupeetan, gustura

Aita Agirreko arkupeetan daude Basuetako eta Lizundia-Txabolako baserrietakoak, elkarren ondoan. Egun euritsuan harapatu ditu BARRENAk, eta, hotez daudela esan badute ere, merkatu plazan baino hobeto daudela aitortu dute. Kulturgunerako sarrera ondoan daude, jendearen bistara, baina euritik

**Merkatu plazatik
Aita Agirrera
lekualdatu dituzte
eguenetako
saltzaileak**



Salmenta-gune bilakatu da Aita Agirreko arkupea. ASIER ORBEA

babestuta, eta aste hauetan gehiago saldu dutela esan dute biek. "Jendearen bistan egotea da gakoa. Hemen barruan sartu izan bagina, epelago bai, baina jendea ez litzateke barrura sartuko", esan du Lizundia Txabolako Migel Juaristik. Eibarren dute horren adibidea; hara ere joaten dira zapatuetan, eta, azoka dotorea eta eroso dute arren, jendea barrura sartzea asko kostatzen zaiola nabaritu du.

Legazpitik etortzen da Andres Etxabe. Gaztandegia daukate, eta gazta saltzen hasi ziren. Gaur egun, bakailaoa, eztia, hestebeateak eta beste hainbat kontserba ere ekartzen ditu. 16 urte zituela hasi zen aitarekin azoketan saltzen, eta gaur egun astelehenetik barikura ibiltzen da herriz herri, eta asteburuetan azoka berezietan hartzen du parte: "Ni hasi nintzenean supermerkatu gutxi zeuden herrietan, eta gu ginen jendearentzako erreferentzia. Gaur egun, asko aldatu dira erosteko ohiturak, eta gazteek ez daukate azokarako joerarik. Azoka berezietan gerturatzen zaizkigu, baina egunerokoan gure bezeroak helduagoak dira". Merkatu plazan egon diren azken urteetan beherakada nabarmena izan dutela adierazi du, eta, haren ustez, Udalak lekualdaketa lehenago egin behar zuen. Jubilatzeke ez zaizkio urte asko gertatzen, eta ordura arte kokaleku hartan jarraitu nahiko luke.

Eguenetako azokako saltzaileen artean, Jesus Clemente azkoitiarra izango da betera-



Mari Karmen Larrañaga eta Migel Anjel Etxeberria ama-semeak. AINARA ARGOITIA



Basueta eta Lizundia Txabolako baserrietakoak elkarren ondoan daude. AINARA ARGOITIA

noena. 10 urterekin hasi zen Elgoibarrera etortzen, gurasoei laguntzera, eta 15 urte zituela hartu zion aitari erreleboa. Lekualdatzearekin oso gustura dago: "Nire salmentak %300 hazi dira! Gelditu gabe egiten dut lan; oso nekatuta amaitzen dut, baina pozik". Urteetan ikusten ez zituen bezeroekin topo egin du berriro, eta harreman

oso ona dauka haiekin: "20 urtean ikusten ez nuen jendea ikusten hasi naiz berriro, eta sekulako poza hartu dut". Gustuko du jendaurrean lan egitea, eta bezeroekin ondo jokatzeari garrantzi handia ematen dio: "Ez gaitzatela beste inora eraman, mesedez, jendaurrean egotea ezinbestekoa da guretzat".

'Lehen aldiz' fikziozko minisaila zuzentzen dihardu Jone Arriola zinemagile elgoibartarrak

Lau ataletako telesaila izango da, eta Primeran plataforman emango dute

Ainhoa Andonegi

EITB taldeak *Formatu txikiak*, *talentu berriak* izeneko deialdia jarri zuen martxan 2025. urte hasieran, iraupen laburreko euskarazko fikziozko telesailen ekoizpena bultzatzeko. Hamalau proiektu aurkeztu ziren deialdira, eta haietatik sei onartu zituzten; tartean, Jone Arriola Lobete (Elgoibar, 1998) gidoilari eta zuzendariaren *Lehen aldiz*. Zinemagile elgoibartarrak Orio Produzioak ekoiztetzearen eskutik onduko du bere estreinako telesaila izango dena, eta dagoeneko hasi dituzte grabazio-lanak.

Arriolak aurretik ere eginak ditu hainbat lan; besteak beste, bi film labur: 2023an Zinebi Nazioarteko Jaialdian aurkeztu zuen *Dena asmatuta dago*, haren lehenengo fikziozko film laburra, eta Lekeitioko Zine Bileran Urrezko Antzarra irabazi zuen lan horrekin; era berean, *Hor konpon* izan zen haren bigarren film laburra. EITBren Primeran plataforman daude ikusgai bi lan horiek, eta *Lehen aldiz* lana ere plataforma horretan ikusi ahal izango da, urte amaieran.

Lehen bizipenetan oinarrituta

Otsailaren 20an hasi zituzten grabaketa-lanak, Igorreko Kiñu



Jone Arriola, Elgoibarren, Kilometroetako bideoklipa grabatu zuten egunean. ASIER ORBEA

Gaztetxean, eta, zinemagileak aurreratu duenez, lau ataleko telesaila izango da. Atal bakoitzean bi pertsonak topo egingo dute espazio ezberdin batean, eta euren artean lehen bizipen bat gertatuko da, lehen aldi bat. "Egunero egiten dugu jendearekin topo, jende ezagun zein ezezagunekin. Askotan,

ez gara ohartu ere egiten elkartzen garen jendearekin batzuetan lehen aldiko topaketa edo lehen aldiko bizipen bat gertatzen ari dela. Bizitzaren parentesi txiki hori izango da *Lehen aldiz* telesailaren xarma; protagonistek lehen aldiko topaketa eta bizipena izango dute, berria eta natu-

rala, bizitza den bezalakoa", adierazi du Arriolak.

Telesailean arituko diren aktoreak zein izango diren ere jakinarazi dute; honako hauek: Nerea Mazo, Xabier Elizalde, Aiora Enparantza, Mikel Kaye, Xanti Agirrezabala, Kimetz Etxabe, Sara Nieto eta Amets Arbelegui.



ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA

Martxoak 5 eta 6
10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Martxoak 7
10:00-13:00

Postuak establezimendu atarietan egongo dira.





Saltokien zerrenda

ALAIN AFFLELOU OPTICO Y AUDIOLOGO
ARANBURU BITXI-DENDA
ARAURI LURRINGEGIA
ATELIER OIHANA
BARRUTIA OPTIKA
BIZKOR BIZIKLETAK
CASA ASTIGARRAGA
ECENARRO LENTZERIA
G & M JANTZI-DENDA
GARATE JANTZI-DENDA
HENKO
IPINTZA MARGOAK
IRIONDO KIROLAK
KARKIZANO
LAGUNAK KOLTZOI-DENDA
LETE
MERAKI ILE-APAINDEGIA
NALAI OINETAKOAK
OLAIA MARTINEZ ESTETIKA ZENTROA
PITXINTXU
ROTETA ELEKTRIZITATEA
SARA JANTZI-DENDA
UZURI OPTIKA

400€ Zozketa erosketa-baleetan

NIRE USTEZ

Elebakartasunaz edo haren faltaz



IRENE MACAZAGA NUÑEZ
HIZKUNTZALARIA ETA
DOKTOREGO AURREKO IKERTZAILEA

Elebakarra hizkuntza batean soilik mintzo den pertsona da. Nahiz eta nekez aurki dezakegun gaur egun hizkuntza-profil hori betetzen duen inor, iruditzen zait hiztun elebakarren gutxitzeak asko esan diezagukeela gizartearen eraldaketaz. Adibide batekin hasiko gara: gaur egun ez da lan erraza euskara bakarrik dakien norbaitekin topo egitea. Dela gaztelaniarekin dela frantsesarekin Euskal Herrian –dela ingelesarekin diasporan–, euskarak badu

norekin lehiatu gure ahotik irteten diren hitzen jabe izateko. Hizkuntza-ukipen egoeretan, non hizkuntza bat baino gehiago kontaktuan dauden, zaila da hizkuntzen arteko oreka mantentzea; alegia, bi hizkuntzak maila berean egotea. Kasu horietan, euskara hizkuntza gutxitua da, beste hizkuntza *boteretsuago* batekin bizi dena. Orduan sartzen dira hizkuntza-politikak jokoan, hizkuntza gutxituen mantentzeaz eta biziberritzeaz arduratuko diren politikak. Horrez gain, elebakartasuna hitzun idealaren mitoarekin lotu izan dela pentsatzen dut, hizkuntza batean soilik hitz egiteak hizkuntza horren

maisur edo maistra bilakatuko bagintu bezala. Are larriagoa da txanponaren beste aurpegia: hizkuntza bat ama-hizkuntzatzat ez izateagatik –euskaldun zaharra ez izateagatik– zilegitasun txikiagoa-edo duzulako ideia hedatuta dago. Euskalduntasunaren txartela lortu beharko bagenu bezala. Elebakartasunarekin hasi banaiz ere, eleaniztasunarekin bukatu nahi nuke. Elebakarren beherakadan, eleaniztunek egin dugu gora. Zaindu eta babestu ditzagun hizkuntzak –batez ere, gutxituak– eta ospa dezagun hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-aberastasuna.

GARAI BATEAN

Loiolara bisitan



Aste honetako erretratu zaharra Kontxi Gabilondok lagatakoa da. 1949an ateratako argazkia da, Loiolan. Roman Garate nobizio zegoen han, eta egun hartan anaia eta

beste zenbait lagun joan zitzaizkion bisitan. 24 bat urte izango zituen Romanek. Santutegiko hilerriko burdin-hesiaren aurrean atera zuten argazkia.

Ezkerretik eskumara: Ignazio, Gotzon eta Jose Luis Garate.
Bigarren ilaran: Ernesto Zubiaurre, Pedro Jose Arriola, Roman eta Niceto Garate.



SEMAFOROA

Mintxetako pista, txarto



"Mintxetako atletismo pista da korrika egiteko lekurik erabiliena, baina zaharkituta dago, eta mantentze falta handia dauka. 1993an zabaldu zuten Mintxeta, eta ordutik pista bera dago. Adituek diote 10 urtera aldatzea komeni dela, bestela lesioak ugaritzeko arriskua dago eta. Azkenaldian, putzu handiak sortzen dira, zuloak ditu leku askotan, harriak eta azpiko zementua ere bistan daude hainbat lekutan... Konturatu gara jendeak ez duela pista ondo zaintzen; esaterako, futboleko botekin jende asko ibiltzen da, eta horrek kalte egiten dio pistari. Hori gutxi ez, eta futboleko kantxa berria egiteko, gure saioetarako fosoa kendu egin digute; ulertzekoa, futbolak atletismoak baino indar handiagoa duelako herrian, baina atletismoan ere asko ibiltzen gara, eta kirol onuragarria da pertsonentzat. Udalari pista berritzeko eskatu nahi diogu. Mugertza krosak herri honi asko ematen dio, eta egun horretan harro esaten dugu Elgoibar krosaren hiriburua dela. Bada, urte osoan nahi dugu izan. Herritarrak atletismoa egitera anima daitezen, ezinbestekoa da pista berritzea".

Gauetz argiak piztuta Mekan



"Sarritan egoten dira piztuta Mekako geletako argiak gauetz, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere. Ez dakit noren ardura den hori zaintzea, baina kontu handiagoa eduki beharko lukeela iruditzen zaigu".

Whatsapp: 688 65 56 58

Udal eraikinetan seinaleztapen irisgarriagoa jarriko du Udalak

Ainhoa Andonegi

Udalak, Danobatgroupen laguntzarekin, udal eraikinetan informazio eta orientazio sistema irisgarriagoa ezartzeko lehen urratsak egin ditu, eta Nuala elkartea ere bidelagun izango dute zeregin horretan. Proiektuaren helburua da seinaleen, piktogramen, mapen eta ibilbideen bidezko sistema argi eta ulergarria garatzea, herritar guztiek espazio publikoak berdintasunez erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko. Seinaleztapen irisgarriaren bidez,

ingurunearen orientazioa eta ulermenaren erraztu nahi dituzte, autonomia pertsonala sustatzeko eta besteekiko mendekotasuna murrizteko. Udalak azaldu du sistema hori bereziki lagungarria izango dela desgaitasun intelektuala dutenentzat, autismoa dutenentzat, adinekoentzat eta ulermen zailtasunak dituztenentzat; hala ere, herritar guztien onerako pentsatutako ekimena dela argitu dute. Udalak bereziki eskertu nahi du Danobatgroupekin eta Nualarekin izandako elkarlana eta haiek



Irudi irisgarriak. A.O.

erakutsitako konpromisoa, "eragile publiko, enpresarial eta sozialen arteko lankidetzak balio erantsia ematen diolako proiektuari".

Lezamako eskupilota txapelketa irabazi du Iker Izagirrek, bikotekako kategorian

Zizur Nagusiko txapelketako finala ere jokatu du pilotari elgoibartarrak

A.A.

Lezamako eskupilota txapelketaren finalak jokatu zituzten joan den barikuan. 32 bikote aritu dira lehian txapelketan; erdiak gazteen mailan eta nagusienean beste erdiak. Gazteetan Lazkaoko Lapke klube-ko lau pilotari ailegatu ziren finalera; tartean, Iker Izagirre elgoibartarra. Aratz Ormaetxea bergararrarekin osatu zuen bikotea, eta beste bikotea Armaoleak eta Figuerok osatutakoa izan zen. Izagirre eta Ormaetxea 12-1 joan ziren aurretik, eta tarte horrek baldin-

tzatu zuen partida. Azken emaitza 22-11 izan zen.

Zizur Nagusiko finala

Zapatuan, berriz, Zizur Nagusiko lau eta erdiko 30. txapelke-

taren finalaurrekoa jokatu zuen Izagirrek, eta 18-6 irabazi zion Bidezabali. Martxoaren 7ko asteburuan jokatu dute finala, eta pilotari elgoibartarrak Ramirez izango du aurkari.



Izagirre, Lezaman. LAGATAKOA

Udaberriko oporralkirako izen-ematea, martxoaren 6ra arte

A.A.

Udaberriko oporralkirako aisialdi eskaintza prestatu dute herriko eragileek, eta martxoaren 6ra arteko epea dago izena emateko.

Atxutxiamaika aisialdi taldeak HH-2 eta HH-5 arteko umeentzako aisialdi-eskaintza prestatu du. Txokoak prestatu dituzte adinka banatuta, eta bi txan-

da jarri dituzte aukeran. Eskaintzari buruzko informazio guztia atxutxiamaika.eus webgunean dago. Txokoez gain, *Jolasa kalera* egitasmoaren saioa egingo dute Lekuederren, martxoaren 27an, doan.

Udal Ludotekak HH-5etik LH-6ra artekoentzako ekintzak antolatu ditu, baina ekintza solteak izango dira. Aste Santu

osteko egunetan egingo dituzte, eta maila bakoitzak bere neurrirako eskaintza izango du. Gaztelekuak ere ekintza sistema bera erabili du, baina DBHko neska-mutilentzat izango da. Ekintza horiek guztiak Udalaren webgunean (elgoibar.eus) kontsulta daitezke.

Dirulaguntzak

Udalak eskaintza horretan parte hartzeko dirulaguntzak eman- go ditu. Informazioa eskuratzeko, 943 74 10 50 telefonora deitu behar da.

Hilketa matxistaren kontra



EFA

Sarrigurenen (Nafarroa) 28 urteko emakume bat hil zuten joan den astean, eta beste bat larri zauritu, eta kasu harekin lotuta 30 urteko gizonezko bat atxilotu zuten, hilketa delitua egotzita. Emakume Feministen Asanbladak antolatuta, elkarretaratzea egin zuten astelehenean Kalegoen plazan, *Aski da* lelopean. Euskal Herriko 2026ko lehen hilketa matxista izan da.



Badakizu zein garrantzitsua den norberaren hortzak kontserbatzea?

Gaur egun odontologia kontserbatzailea da, ezerk ez duelako funtzionatzen norberarenak baino hobeto. Zure hortza osasuntsu baldin badago, saiatzen gara hura mantentzen, inplantea edo protesia jarri aurretik. Hala ere, batzuetan ezin izaten da. Halakoetarako aukera dira inplanteak.

Aldaz Hartz Klinikari beti tratatzen dugu hortzetako arazo bat ikuspegi kontserbadore batetik. Eta hortza salbatzeko modu asko daude.

- **Endodontziak:** Nerbioa hiltzen dute eta infekzioa geldiarazten dute.
- **Enpasteak:** Kaltetutako barrunbea garbitu eta estaltzen dute.
- **Berreraikuntzak:** Egin beharreko enpatea handiagoa denean egiten dira.
- **Tratamendu periodontal:** Entziak tratatzen ditugunerako.

Zure hortza osasuntsu mantentzen duzunean, hezurri eusten ari zara, hozkadari, bai eta berezko sentiberatasunari ere, eta, aldi berean, etorkizunean tratamendu konplexuagoak egin behar izatea saihesten duzu.

Horregatik, ahal den guztietan, geure hortzak mantentzeko ahalegina egiten dugu.

Eta hortzari eutsi ezin badiogu? Aho bakoitza desberdina da, eta garrantzitsuena erabaki zuzena hartzea da. Aldaz hortz-klinikan horretan laguntzen dizugu, balorazio oso bat eginez, doan.



San Bartolome, 22 - Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

Sigmako goiko aparkalekua erabilera librekoa izango da domekatik aurrera

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udalak 2025. urte hasieran jarri zuen indarrean denboran mugatutako aparkaleku sistema (TAO), eta horrek hainbat aldaketa ekarri zituen; tartean, Zizilongo aparkalekuaren goiko aldean: aparkatzeko eremu libre izatetik TAO sistemakoa izatera pasatu zen. Elgoibarko Udalak azaldu duenez, neurri hark hainbat iritzi eta zalantza sortu zituen herritarren artean, eta erabaki zuten arau berrira eramandako guneen erabileraren jarraipena egitea.

Azken hilabeteetan, beraz, okupazio-datuak eta plazen erabilera aztertu dituzte, eta emaitza horietan oinarrituta erabaki dute Zizilongo aparkalekua lehengora bueltatzea, hasieran ezarri zuten helburua ez delako bete.



Zizilongo aparkalekua. ASIER ORBEA

Domekatik aurrera

Horrenbestez, martxoaren 1etik aurrera, berriro ere denbora mugarik gabeko aparkalekua izango da Zizilongo aparkale-

kuaren goiko aldea. Behealdeko aparkaleku estaliak, berriz, iraupen luzeko doako TAO gunea izaten jarraituko du, lau ordukoak.

Helduak eta umeak mendian, Morkaikok antolatutako bi irteeratan

Orixol mendira joan ziren helduak zapatuan; eta Urregaraira egin zuten irteera domekan, familian

A.A.

Mendia eta sagardotegia uzartu zituzten zapatuan Elgoibarko hainbat mendizalek. Aramaioko Orixol mendira igo ziren, Ibarratik, erdigunetik, eta Etxaguendik jaitsi ziren behera. 14 kilometroko ibilbide zirkularra egin zuten, 800 metroko desnibel positiboarekin. Herriko kiroldegian dutxa

hartu ondoren, Unzueta sagardotegian bazkaldu zuten.

Domekan, bestalde, Urregaraira joan ziren hainbat familia. Lekoitzeko mendateraino joan ziren autoz, eta handik Santa Eufemirako bidea hartu zuten. Hain zuzen ere, 222 eskailera igota iritsi ziren ermitara, eta handik hartu zuten tontorrerako bidea.



Talde-argazkia. MORKAIO



Sagardotegira irteera. MORKAIO

MARTXOAREN 8A


'No estás loca' dokumentala eta zuzendariarekin solasaldia, egunean

A.A.

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan bi dokumental emango dituzte Herriko Antzokian datorren astean. Eguaztenean, martxoak 4, *Llámame sinsorga* filma emango du Ongarri zine-klubak, 21:00etan. Eguenean, bestalde, Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, zeresan handia ematen ari den *No estás loca* dokumentala proiektatuko dute, 19:00etatik aurrera.

Zuzendariarekin solasaldia

Espainian indarkeria bikarioa jasan duten emakumeen historietan barrena eginiko ibilbide intimoa eta aldi berean kolektiboa jasotzen du dokumentalak. Berrogei testigantza baino gehiago biltzen ditu lanak, emakume, nerabe eta profesionalenak, sistema judizial batek haurrei sistematikoki huts egiten diela erakusten dutenak. Laguntza oihubat da filma, eta itxaropenari egingako kantu bat; oraindik egiteko asko dagoela gogorarazteko.



Maria Bestar da zuzendaria, eta dokumentalaren ostean harekin solasaldia egingo dute.

MARTXOAREN 8A

Emakume Feministen Asanbladaren afarirako izena eman behar da

A.A.

Emakume Feministen Asanbladak hainbat ekintza antolatu ditu M8aren harira, eta martxoaren 6an hasiko dituzte. Triki-poteoa eta afaria prestatu dituzte egun horretarako. Kultur Etxe aurrean hasiko dute triki-poteoa, 19:00etan, eta afaria Kultur Kafean egingo dute, 21:00etan. Interesatuak 12 euro

ordaindu beharko dituzte. Pitxintxun edo Kultur Kafean eman daiteke izena, martxoaren 3rako. Ordainketa Bizum bidez egin behar da, 697 33 41 61 zenbakian.

Martxoaren 8rako, bestalde, Karakatera joateko plana egin dute. Mekan batuko dira, 09:00etan, eta eguerdian Kalegoen plazan egingo den elkarretartzean hartuko dute parte.

Dokumentala eta beste

Udalak, bestalde, hilabete osoko egitaraua prestatu du, eta datorren astean izango dira ekitaldi batzuk. Astelehenean, *Emakumeak eta artea* tailerra egingo dute Lilan, 17:30ean. Eguaztenean eta egunean bi dokumental proiektatuko dituzte Herriko Antzokian: *Llámame sinsorga*, hilaren 4an, 21:00etan; eta *No estás loca*, hilaren 5ean, 19:00etan. Barikuan, berriz, *Esne berriketan* musika eta bertso saioa egingo dute, 19:00etan, Musika Eskolan.



lazio afaria. EFA

Aurrerantzean, jarlekuak zenbakituta egongo dira zinema-emanaldietan

Ainhoa Andonegi

Udaleko Kultura Sailak erabaki du zinema-emanaldietan jarlekuak zenbakituak izatea. Erabaki horren ondorioz, zenbait herritar "haserretu" egin ziren joan den asteburuan, eta, egoera horren harira, hainbat azalpen eman ditu Kultura Sailak. Sarrerak Internet bidez erosteko aukera jarri zutenetik, ikuskizun eszenikoetarako zein zinema-emanaldietarako sarre-
rak ere zenbakituak izaten ziren. Antzerkietarako zenbaki horiek errespetatu egiten dira, baina, zinema-emanaldietan leku arazorik egoten ez denez, bakoitza nahi zuen lekuan eser-
tzen zen, orain arte: "Arazoa

sortzen da film emanaldi jendetsuetan. Sarrerak Internetez erosi dituenak bere jarlekuan eseri nahi du, eta gerta daiteke iristen denerako beste norbait egotea leku horretan". Horrelakoak ekiditeko, bai Internetez bai txarteldegian erositako sarreraren jarleku zenbakia errespetatu egin beharko da hemendik aurrera.

Online erostea

Kultura Sailak sarrerak online ero-
stera animatu nahi ditu erabiltzaileak, filma hasi aurretik sortzen diren ilara luzeak sai-
hes-
teko. Gogoratu dute filma hasi baino 45 minutu lehenago za-
baltzen dutela txarteldegia, eta



Antzokiko ataria. ASIER ORBEA.

filma hasi baino hamar minutu aurretik ixten dutela: "Filma bere orduan hasten da; beraz, txarteldegian erosi nahi dutenei eskatu nahi diegu denboraz joateko, bestela filma hasita sartuko dira-eta aretora".

'Esne berriketan' bertso saio literarioa antolatu dute hilaren 6rako



Mendaroko saioko irudia. AINARA ARGOTIA

A.A.

Martxoaren 8aren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak, eta horietako bat da *Esne berriketan* bertso saio literarioa. Musika Eskolako auditoriumean izango da, gaur zortzi, martxoaren 6an, 19:00etan hasita. Sarrera librea izango da.

Liburuan oinarrituta

Uxue Alberdik azkena argitaratu duen *Esne-berriketan* liburu-ko kontakizunetan dago oina-

rrituta bertso-saioa; 57 kontalari-
rik ahoz kontatu eta Alberdik belarriz jasotako 77 istorio jaso ditu liburuan, euskara batuan eta ahozkotik ahalik eta gertuen dauden idazkeran. Kontakizun horietako batzuk irakurriko ditu bertso-saioan, Iban Urizar *Amorante* musikari elgoibartarrak musikatuta. Haietan oinarritutako gaiak emango dizkie gero bertsolariei, haiek bat-batean kantuan egin dezaten. Onintza Enbeita eta Miren Amuriza arituko dira bertsotan.

Zabalik dago Aste Santuko kirol campuserako izena emateko epea



Iazko campusean. KIROL CAMPUSA

A.A.

Martxoaren 30etik apirilaren 1era eta apirilaren 7tik 10era egingo dute udaberriko kirol campusa. LH-1 eta LH-6 arteko eskola-umeek parte hartu ahal izango dute, eta partaideek hainbat kirol-jarduera egiteko aukera izango dute, aire zabalean zein herriko kirol instalazioetan. 09:30etik 12:30era izango da.

Kirol Patronatuko abonatuak 59 euro ordaindu beharko dituz-

te parte hartzeko, eta gainera-koek, 69; gizarte-laguntzaren bat jasotzen duten familiek %70eko deskontua izango dute; eta familia ugariak eta guraso baka-
rrekoek ere izango dute deskontuak eskatzeko aukera: %30ekoa, hain justu.

Izena Olaizaga kiroldegian eman beharko da, martxoaren 26a baino lehen. Informazio gehiago, 943 74 44 15 telefono-zenbakian.

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
943 740 704 - 639 047 337
Astelerozetik ostialara:
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Isapoi-
degia berbitze-
dauka:
Datu ordua hartze-
ko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

MEKANOSA Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ☑ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ☑ ETA KONPONKETA
- ☑ MULTIKOPISTAK
- ☑ FOTOKOPIAGAILUAK
- ☑ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ☑ MARRAZKETA MATERIALA
- ☑ INFORMATIKA
- ☑ FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

QNEDLG 55QNED84A6C.AEU
TELEBISTA

- Smart tv Web 25
- 4K UHD
- Ahots kontrola
- Dolby Digital Plus
- Googleren laguntzailea
- 3 HDMI
- USB
- Adimendun prozesadorea
- 4k a7 Gen8 Airekin
- QNED teknologia

479 €

SAMSUNG
Neo QLED
Mini LED

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

MILAR BIRE

"Adimena trebatu nahi duen edonorentzat da egokia Burulogy tresna"

AITOR OTEIZA TAILERRAREN DINAMIZATZAILEA

Funtzio kognitiboak estimulatzeko Burulogy izeneko tailerra eskaintzen hasi zen iaz Mendaroko Udala, eta, egun, hogeita bi lagun elkartzen dira astero, bi taldetan

Ainara Argoitia MENDARO

Burmuina zaintzea eta estimulatua mantentzea oso da garrantzitsua; are gehiago, adin batetik aurrera. Eta horren jakitun antolatu zuen iaz Burulogy tailerra Mendaroko Udaleko Ongizate Sailak. 2024a ezkerro eskaintzen duen *Bizi-bizi* programaren osagarri da Burulogy, hein batean, lan-dinamika ezberdinak izan arren bien helburua baita adinekoen autonomia sustatzea eta mendekotasun egoerak saihestea. Aurten, bigarren ikasturtea dute programara batu diren 22 lagunek. Bi talde egin dituzte, eta martitzen arratsaldeetan (17:00-18:00) eta eguazten goizetan (11:00-12:00) elkartzen dira, udaletxeko hirugarren solairuan. Goizeko taldea aspaldi bete zen, eta itxarrote-zerrendan dago jendea, baina arratsaldeko taldean bi lagunentzako lekua dago oraindik. Izan ere, gehienez hamabi laguneko taldeak izan daitezke, hortik gorako kopuruetan lan egitea zaila gertatzen delako. Hala adierazi du Aitor Oteizak, tailerraren dinamizatzaileak.

Zer da Burulogy?

Burulogy burua entrenatzeko tresna bat da, izatez; funtzio kognitiboak estimulatua eta gaitasun mentala hobetzeko garatutako tresna bat. Eskolara datozenek burua lantzeko ariketak egiten dituzte tabletan. Askotariko arloak lantzen ditugu taldean, baina nork berea eginez, nork bere erritmora lan eginez. Buruko kalkulua, kontzentrazio gaitasuna, zentzumen-pertzepzioa, memoria, dedukzioa, buru-bizkortasuna, hizkuntza eta orientazioa dira lantzen ditugun arloetako batzuk, eta, itxura batean, behintzat, gustura ari dira erabiltzaileak.

Nori zuzendua dago tailerra?

Adimen trebetasuna hobetu nahi duen edonorentzat da egokia. Mendaron, baina, adinekoei zuzenduta dago tailerra. Gu ez gara medikuak, baina iruditzen zaigu lagungarria dela adinagatik, gaitasun neurodegeneratiboren bategatik, garun paralisiren bategatik edo beste edozein arrazoiengatik narriadura kognitiboa dutenentzat. Gaur egun, oso ohituta gaude gorputza entrenatzera eta elikadura zaintzera, baina garunak ere behar du entrenatzea, osasuntsu mantenduko bada. Ikusten duguna da, baina, lanean erretiroa hartu ondoren jendeak ez diola buruari horrenbeste eragiten. Jendeak joera izaten du dena uztekoa, eta, bereziki, gizonek; emakumeak aktiboago mantentzen dira gero ere. Etortzen zaigu jendea esanez sudokuak eta egiten dituela eta hori ere badela burua entrenatzeko bidea, eta, jakina, bai, ezer baino hobea da hori ere, baina egunero gauza bera egiten aritzen

dira, gustuko ez dituzten alderdiak horrenbeste zaindu gabe. Burulogyk aukera ematen du jolasen bidez alderdi guztiak lantzeko.

Tableta banarekin ikusi zaituztegu gelan. Zein da lan-metodologia?

Bai, nork bere tableta du, eta aldi berean aritzen dira denak lanean, baina nor bere erritmora eta bere ahalein arabera. Era horretan, frustrazioak saihesten ditugu. Ariketa guztietan hainbat maila daude, eta bakoitzari bere gaitasunaren arabera maila esleitzen diogu. Hartara, erabiltzaileak ez dira sekula ondokoak baino gutxiago sentitzen. Ariketak paperean egiten direnean beste zerbait da. Beti dago azkarrago egiten dituen norbait, eta horrek sortu dezake gutxiago sentitze bat beste batzuegan. Gure erabiltzaileak ez dira teknologia berriekin batera jaio-takoak, baina Burulogyko ariketak pantailan egiteko gai dira, eta horrek ahalduentzako ere balio die.



Aitor Oteiza, tailerrean erabiltzen duten tableta eskuan duela. A. ARGOITIA

Teknologia eta hezkuntza zientziak uztartu dituzue. Nolatan sortu zenuten proiektu hori?

Nik Informatika ikasi nuen, eta ekintzailetza sustatzeko Yuzz programan eman nuen izena. Senide batek alzheimerre zeukan, eta erabili nahi nuen nire ezagutza hari laguntzeko. Nire lankide Irune Martinez, berriz, pedagogoa da, eta alzheimerre zuten adinekoentzako proiektu bat garatzen ari zen elkartu ginenean. Gaur, Ermuan, Eibarren eta Mendaron ematen ditugu tailerrak eskualdean. Hala ere, gure webgunearen bidez, nahi duenak aukera dauka programan izena emateko eta etxetik lan egiteko. Hala-

koetan, pertsona horren gaitasun kognitiboen inguruko balorazioa egiten du Irunek, eta ikusten badu baliagarri izan dakiokeela Burulogy, haren beharretara egokitutako plan bat diseinatzeko dio. Prozesu osoan erabiltzaile horrek ondoan izaten gaitu behar duenerako, eta haren emaitzen balorazioa egiten dugu bukaeran.

"Nahi duenak aukera dauka programan izena emateko eta etxetik lan egiteko"



Martitzen arratsaldeetako taldea. A. ARGOITIA

Ainara Argoitia MENDARO

Martxoaren 14an ospatuko dute Mendaron Motxaila Eguna, baina bezperan hasiko dute jai-egitaraua, *Zerua, motxailen aterpe* bertso-saioarekin. Motxaila Elkarateak antolatu du bertso-saioa, Udalaren laguntzarekin, eta aurten ere punta-puntako lau bertsolari arituko dira oholtzan kantuan: Andoni Egaña, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Julio Soto. Gai-jartzaile lanak, berriz, Motxaila Elkarateko Xeber Loiolak egingo ditu, eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, herriko bertako bertso eskolako gaztetxoek ere parte hartuko dute saioan; Gipuzkoako Herriarte Txapelketan Debabarreneko finalerako sailkatu berri den Iruñe Basagoiti bertsolariaren ikasleak. San Agustín kulturgunean izango da bertso-saioa, 22:00etan hasita, eta sarrerak salgai daude da goeneko, Morroskillon eta Aitzbeltz tabernan, 8 euroan.

Udaberriaren etorrera ospatzeko jaia

Garai bateko Sasikopotzu ohi-tura zaharrari lotutako jaia da Motxaila Eguna, udaberriaren



Julio Soto eta Amets Arzallus, iaz. Aurten ere izango dira Mendaron, lagunak aldatuta. A. ARGOITIA

Salgai daude Motxaila asteburuko bertso-saiorako eta bazkarirako txartelak

Martxoaren 13an izango da bertso-saioa, eta biharamunean jai handia

etorrera ospatzeko jai handia *motxaila herrian*. Garizuma aurretik ospatzen zuten sasoi batean Sasikopotzu, Inauterien aurreko domekan, eta aurten ere ospatu zuten Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasle talde batek,

baina otsailaren 15ean. Nolanahi ere, ospakizun haren esentziari eusten dio Motxaila Egunak. Duela hogeita urte sortu zuen jaia gaur Motxaila Elkarateak. Urteetako tradizioari eutsiz, Aitzbeltz kobazulora egingo

duten irteerarekin hasiko dute eguna. 09:00etan elkartuko dira, Gaztetxe atarian, eta oinez egingo dute kobazulorainoko bidea. Kulturaren aterpe bihurtuko da Aitzbeltz egun horretan, kobazuloan askotariko kultur

jarduerak egitea dago-eta aurreikusita: ipuin-kontaketa saioak, poesia emanaldia, musika... Kobazulora batzen direnen talentuaren arabera izango da eskaintza, inprobisaziotik asko izango duena. Handik jaitzitakoan, Gaztetxean bazkalduko dute aurrez txartela hartua dutenek. Salgai daude bazkarirako txartelak Uztargi tabernan, 12 euroan, eta antolatzaileek aurreratu dute egunean bertan frontoiko dutsak eta aldagelak erabiltzeko aukera izango dutela mendizaleek.

Bazkalondorenerako, berriz, bertso-saioa antolatu dute, hiru bertsolariarekin: aurten Xilaba txapelketan finalista izan den Elixabet Etxandi, azkeneko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalista izan zen Xeber Altube eta iaz Osinalde Sarian bigarren egin zuen Aitor Tatiegi oñatiarra, 2024an Lizardi Saria eskuratu zuen bera. Bertso-saioa bukatu osterako, berriz, kalejira dute iragarria, Xaukena elektrotxarangarekin, eta gauerako bi kontzertu lotu dituzte, Aramu eta Inguma taldeekin. Gaztetxean izango dira kontzertuak, 22:30ean hasita.



MARTXOAREN 8A

'Ovarios verdes fritos' antzezlanaren egingo dute martxoaren 6an

A.A.

Martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan, *Ovarios verdes fritos* antzezlanaren lotu du Mendaroko Udalak martxoaren 6rako. San Agustín kulturgunean izango da emanaldia, 18:30ean, debalde.

Belen Nevadok idatzi, zuzendu eta interpretatutako antzerki ikuskizun probokatzaile eta komikoa da *Ovarios verdes fritos*. MasturbatuCandida doktorea da protagonista, eta ikerketetan baieztatutako ebidentzia batetik sortutako TxuminoPowerRevolution programaren ildo nagusiak aurkeztuko dizkio publikoari, erakustaldi praktikoak eginez: zoru pelbiko boteretsu baten gainean sabai mental indartsu bat eraiki ahal izango du. Laburbilduz, plazera ez duela inork ematen, ez oparitzen; plazera norberarena dela eta topatzen ikasi behar dela.

Bakarriketa bat da funtsean antzezlanaren, baina publikoarekin hartu-eman zuzena eragingo du

etengabe Nevadok. "Thes-balbula" bat da obra, emakumeen ahalduntzea, norberaren plazer eta zoru pelbikoaren indarra umorez lantzeko ahalegin ausart eta iradokitzailea. "Emakumei zuzendutako antzezlanaren, izatez, baina gizonek galdu behar ez luketena", dio.



Antzezlanaren une bat. M. URRUZUNO

Aingeru Guardako eguna ospatuko dute domekan Plaza auzoan



Iazko aizkora jokoaren une bat. A. ARGOITIA

A.A.

Igandean, martxoaren 1ean, Aingeru Guarda Eguna ospatuko dute Plaza auzoan, Aingeru Guardako ermitaren inguruan. Ohiko osagaiak izango ditu jaiak: 12:00etan meza izango dute, eta meza-ostea Ameikutz musika eskolako trikitilariak girotuko dute. Ohi legez, baina, herri-kirol saioa ere izango da,

eta iazko kirolari berberak ari-tuko dira lanean, nor baino nor: Julen Kañamares eta Aratz Mugertza. Era berean, taberna jarriko dute antolatzaileek, Aingeru Guardako Jai batzordekoek, mokadu bat egiteko. Duela hamazazpi urte berreskuratu zuten Aingeru Guardako jaia Plaza auzoan jaiotakoan ondorengoek.

Zientziari buruzko ihes gela eta film emanaldia Gaztelekuan



Chihiroren bidaia filmaren kartela.

Iragarrita zuten programazioan aldaketa bat egin, eta eskaintza berezia antolatu du Gaztelekuan astebururako. Hasteko, gaurko, ihes gela antolatu dute Gaztelekuko erabiltzaile guztientzat. Zazpi laguneko taldeetan sartuko dira eta hamabost minutu izango dituzte zientziaren inguruko probak gainditzeko. Igandeko, berriz, *Chihiroren bidaia* filmaren emanaldia iragarri dute, eta sarrera libre izango da. Gaztelekuan bertan izango da proiektzioa, 18:00etan hasita.



Zuriñe Rodríguez, Beatriz Gamiz, Oihane Lopez eta Pilar Rios, proiektua aurkezteko egindako prentsurrekoan. A. GOMEZ

LGTBIQ+ komunitatearen egoera ezagutu eta hobetzeko diagnostikoa egingo da Ermuan

Abenduan abiatu zuten proiektua eta emaitza ekainean argitaratzea aurreikusi dute

Ander Gomez ERMUA

Joan den barikuan, proiektua aurkezteko prentsurrekoa egin zuten Ermuko Udaleko eta diagnostikoz arduratuko den Sudergintza kooperatibako ordezkariak. Oihane Lopez Berdintasun teknikariak azaldu zuenez, urteak daramatzate generoa eta aniztasun afektibo-sexuala lantzen ikasle eta irakasleekin; tartean, ikuskizun ludikoak ekarri dituzte. Adibidez, Yogurinha Borovarena. Urtero Harrotasunaren Egunerako ekimenak ere bultzatzen dituztela gogoratu zuen, eta

azpimarra jarri *Libre naiz neure burua definitzeko* kanpainan, non ez-binario aukera gehitu zen lehen aldiz udal formularioetan. Hala ere, udalerriko egoera "hobeto ezagutzeko beharra" ikusten dute, "bizilagunei egokitutako politika errealagoak aplikatu ahal izateko"; eta horregatik murgildu dira *Ermua Harro* proiektuan.

Proiektuaren oinarriak

Beatriz Gamiz alkateak azaldu zuenez, egingo den diagnostikoa Ermuko LGTBIQ+ komunitatearen errealitatea, beharrak

eta dauzkaten oztopoak ezagutzeko balioko du: "Argazki zehatz, integral eta interseksionala lortu nahi dugu, pertsona horiek bizi-kalitate hobea, euren esku-bideak bermatuta eta udalerrri habitagarriagoa izan dezaten". Horrela, datozen hilabeteetan, Ermuan dauden indarguneak, sareak eta espazioak aztertuko dira, baita etorkizunean inplementatu litezkeen neurriak ere.

Sudergintzako Zuriñe Rodríguez ikertzaileak azaldu zuenez, prozesuak hiru ardatz izango ditu. Alde batetik, Ermua nola

koa den ezagutzea: "Tradizionala edo irekia den, aisialdiguneak egokiak diren, festek kutsu homofobikorik duten edo ez, edo zenbateraino...". Bestetik, LGTBIQ+ pertsonen ze zigor jasaten dituzten: "Jipoiak datozkigu burura beti, eta ez eguneroko komentario eta txutxu-mutxuak -nor maite duzun, zeinekin oheratzen zaren, zela bizi zaren...". Azkenik, Ermuan sareak sortzeko dagoen ahalmena aztertuko da: "Bai antolakuntza aldetik, bai elkar zaintzeari dagokionez".

Prozesu parte-hartzailea

Horrelako diagnostikoak hiri handiak oinarri hartuta egin ohi direla zioen Rodríguezek, baina eurek "txikitik eta modu pertsonalizatuan" egiteko apustua egiten dutela. Errenterian, Aretxabaletan, Oñatin, Legorretan, Zarautzen... izan dira aurretik, eta "emaitza zeharo desberdinak" atera dira bakoitzean. Horregatik, Ermukoa ere ermua-rraren bizipenetatik soilik sortuko da, hainbat modutan: banakako elkarrizketak, topaketak, kontraste-taldeak, lan-espazioak... Baina lehen fase honetan, galdetara batekin hasiko dira -*lgtbiq@udalermua.net* helbidera idatzita jaso daitekeena-, eta komunitatearen parte diren herritar guztiak gonbidatu dituzte bete dezate; baita *sexilioa* bizi eta gaur egun Ermutik kanpo daudenak ere: "Agian, bada garaia onartzeko herriak ez zuela behar bezala erantzun, eta orain bere tokia izan dezaketela".

Gogorarazi zuten jasotako informazioa guztiz konfidentziala izango dela eta pertsonen beharretara egokituko direla une oro. Aldi berean, oraingoz bost lagunez osatutako talde motorra sortu dela kontatu zuen Lopezek, informazioa eta bizipenak jaso-

tzen lagunduko duena. Rodríguezek ustez, komunitateko kideei bizipen horiek kontatzeko aukera ematea bezain garrantzitsua da biztanleria heterosexualak jakitea nola bizi diren herrikideak.

Diagnostikoa ekainean argitaratzea aurreikusi dute, eta edozein formatutan izan daiteke: "Herri batzuetan dokumentu sendo bat atera da, beste batzuetan aurkezpen bisuala, edo bideo bat". Hori bai, komunitate barruko aniztasuna bere osotasunean irudikatzen saiatuko direla agindu dute, "adina, gorputza, jatorria, arraza, gaitasun intelektuala... edozein delarik". Emaitzek etorkizunean politika eraginkorragoak aplikatzeko balioko dute, "LGTBIQ+ bizilagunez gain, herritar guztientzat mesedegarri izan daitezkeenak".

"Azken urteetako lanari jarraipena eman behar diogu, ermuarrak hobeto ezagutu eta politika errealagoak ezartzeko"

OIHANE LOPEZ GRANDE
BERDINTASUN TEKNIKARIA

"Diagnostikoak LGTBIQ+ herritarren errealitatea, beharrak eta oztopoak ezagutzen lagunduko du"

BEATRIZ GAMIZ MATA
ALKATEA

"Euren bizitza kontatzea bezain garrantzitsu da biztanleria heteroak istorio horiek ezagutzea"

ZURIÑE RODRIGUEZ LARA
SUDERGINTZAKO IKERTZAILEA

Neguko petanka txapelketa amaitu da, garaikur, diploma eta sari bereziekin

A. Gomez

Azaro bukaeran hasi zen Pasiak leku Jubilatuen Etxeak antolatutako Neguko Petanka Txapelketa Irekia, eta 48 lagun batu ziren, bikoteka. 23 jardunaldi jokatu dituzte, eta joan den barikuan izan zen azkena. Hirugarren postuan geratu da Marko Alonsok eta Federico Candelasek osatutako bikotea, bigarren Juan

Jose Amador eta Miguel Arribas izan dira, eta txapela irabazi dute Daniel Gomezek eta Moulay Ahmedek. Horrez gain, laugarren eta zortzigarren postuen artean geratutakoek ohorezko diploma jaso dute, eta "txapelketa gehien alaitu duen bikotearentzat" sortutako Sinpatia Saria Conchi Cojo eta Rosario Camacho jokalariei eman diete.



Sari banaketako talde argazkia, jokalariei, epaile eta txapelketa antolatzaileei egin duten laguntzaileekin. IRUNE MARTINEZ



Trenbide zaharraren tunela itxita dago gaur egun. UDALA



Ibilbidearen zati bat. UDALA



Gipuzkoa etorbideko etxebizitza asko bidetik gertu daude. UDALA

Udalak kontuan hartuko ditu herritarren ekarpenak Bide Berdearen proiektuan

Otsailaren 23an egindako bileran auzotarrek euren kezkak azaldu zituzten

Dorleta Vidal

Ermuko Udalak Bide Berdearen proiektua lantzeari ekin dio 2026an, eta gaur egun hasierako dokumentuak lantzen dihardu, Eibarko Bosark Arkitektoak enpresarekin batera. Horren berri emateko, bilera irekia antolatu zuen Lobiano Kulturgunean otsailaren 23rako, eta 30 herritar inguru batu ziren bertara.

Bide Berdeak berreskuratu egingo du trenbide zaharraren bidea eta aisialdirako gune bihurtuko du: San Antonio eta San

Lorenzo auzoak batuko ditu, eta Eitzagaraino oinez heltzeko aukera emango du, indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) jasotzen den moduan. Horri jarraituta, Bosark enpresako arkitektoek azaldu zuten hainbat aukera aztertzen ari direla proiektuari forma emateko, eta, bestalde, prozesu horretan herritarren ekarpenak jasoko dituztela.

Aipatu zuten lehen puntua lotuta dago San Antonio auzoan kokatuko den sarrerarekin. Izan ere, bi aukera aztertzen

ari dira bertara heltzeko: apartokalekutik bertatik –aparkaleku ugari kentzea eragingo lukeena– edo egungo trenbide azpitik oinezkoentzako pasabidea erakita. Horrez gain, etxeen aurrean jarri daitezkeen babesak nola-koak izan daitezkeen komentatu zuten; baita ere, tunela nola atonduko duten, leku seguru bihurtzeko.

Bestalde, jakinarazi zuten herritarrek hamabost eguneko epea izango dutela ekarpenak egiteko, gerora aztertuko direnak, eta proposamenak egin

nahi dituztenek mezua bidali beharko dute ekarpenak@udalermua.net helbidera, edota Abiapuntura joan, eskuz egin nahi izanez gero. Biak ala biak martxoaren 10a baino lehen egin beharko dira.

Auzokideen pribatutasuna

Aurkezpena amaitutakoan, bertaratutakoek euren kezkak eta zalantzak azaltzeko aukera izan zuten, eta horietako asko lotuta egon ziren etxebizitzaren pribatutasunarekin, bidea etxebizitzetatik oso gertu igarotzen delako zati batzuetan. Era berean, bizikletek bidea erabili ahal izango dutela jakiteak ezinegon sortu zuen bizilagun batzuen artean, eta bidearen garbitasunak berak ere zalantzak sortu zituen.

Halaber, galdera ugari egin zituzten sarreraren inguruan, eta

proposatu zuten Errotabarriko parke inguruan sarbide bat eraikitzea Bide Berdearen, baina proposamen hori baztertu egin zuten, hark izango lukeen kostuagatik eta hura jasota dagoelako oraindik lantzen hasi ez den San Lorenzoko Planean, Hirigintza eta Jasangarritasun arloko zinegotzi Rosa Maria Ciden esanetan. Haren erantzunak jaso zuen arkitektoen eta udaleko Bulego Teknikoaren langileen babesa.

Herritarren ekarpenak jasotzeko epea agortu eta gero, lau hilabeteko tarte egongo da proiektua idazteko; bukatutakoan, Bizkaiko Foru Aldundia- ren, Uraren Euskal Agentziaren eta Euskal Trenbide Sarearen oniritzia jaso beharko du, eta, jarraian, lizitaziora aterako dute, beharrezkotzat jotzen den exekuzio-epea ezarrita.

Umeek naturarekin konektatzeko tailerra antolatu du Liburutegiak

D.V.

Natura zure eskuan izenburua duen ikastaroa antolatu du Udal Liburutegiak, 2014 eta 2016. urteen artean jaiotako gaztetxoek zuzenduta, eta bertan parte hartzen duten ikasiko dute loreak ezagutzen eta horiekin modu artistikoan eta hezitzailean lan egiten. Besteak beste, kartoizko prentsa bat egingo dute, eta, hari esker, loreak eta hostoak lehortzeko teknika ikasiko dute; ostean, nork bere koaderno sortuko du, basoko landareak erregistratzeko eta sailkatzeko eta elkarrekin identifikatzen ikasteko.

Tailerrak hiru saio izango ditu, martxoaren 5ean, 12an eta 26an,

17:30etik 18:45era, eta liburutegiko hirugarren solairuan izango dira. Doakoa den arren, interesa dutenek martxoaren 2a baino lehen eman beharko dute izena, liburutegian bertan, eta, eskaera handia egonez gero, zozketa bidez esleitu dituzte plazarak. Hala, Ermuko Udalaren webgunean argitaratuko dute behin betiko onartuen zerrenda, martxoaren 3an.

Dinamizatzaile ermuarra

Liburutegiko arduradunen arabera, tailer horri esker umeek naturarekin konektatzeko aukera izango dute, sormenaren eta ikaskuntza praktikoaren bidez. Bide horretan, Leire Martinez



Leire Martinezek dinamizatuko du. L.M.

ermuarra izango dute ondoan, hura izango baita tailerraren dinamizatzailea. Martinezek duela zenbait urte ekin zion baliabide naturalekin lan egiteari eta horrekin lotutako ikastaroak emateari.

Jauziak lantzeko ikastaroa emango du Txindurri taldeak

D.V.

Txindurri Dantza Taldeak *Jauziak osorik eta ez erdizka* ikastaroa emango du martxoaren 5ean, 12an eta 26an, eta horren helburua izango da jauzien oinarriko urratsak ikastea, hutsetik hasita, eta hainbat jauzi-dantza egiteko gai izatea, antolatzaileen esanetan.

Saioak Lobiano Kulturgunean izango dira, 20:00etatik 21:00etara bitartean, eta parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena, tdt.dantzarigazteak@gmail.com helbidera mezua idatzita edo 688 67 54 46 telefonora *whatsapp* bat bidalita. Prezioa 30 euro da, eta ikasleek eta langabeek,

berriz, 25 euro ordaindu beharko dituzte.

Saio monografikoak

Jarduera hori *Dantza ikastaro monografikoak* bildumaren baitan dago, eta herritar guztientzako da. Aurretik fandangoa eta arin-arina dantzatzeko prestakuntza saioak eman izan ditu Txindurri, baita ere larrain dantzan eta erromerietan gozatzeko, eta euskal jantzien ingurukoak.

Horien bitartez, hankak eta lotsak astintzera animatu nahi dituzte txindurriko kideek dantzazaleak, eta diote parte-hartzaileek barre asko egingo dutela.

"Beldurra amorru bilakatzeak indartu egiten ditu neskak"

AGEDA BLASCO EGIA 'AUTODEFENTSA FEMINISTA' IKASTAROAREN DINAMIZATZAILEA

Dorleta Vidal

Ermuko Emakumeen Topalekuaren Jabekuntza Eskolak hiru ikastaro emango dizkie herriko neskatoei, autodefentsa feministaren esparruan lehen urratsak egin ditzaten. Horietako bigarrena bihar izango da, otsailak 28, eta, gainontze-koek bezala, 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak batuko ditu. Saioen bideratzailea Gestalt terapeuta eta Ikasketa Feministetan doktoregai Ageda Blasco Egia (Donostia, 1989) izango da.

Zer da autodefentsa feminista?

Ariketa bat da, indarkeria matxista norberaren bizitzan identifikatzen ikasteko eta hari erantzuteko tresnak garatzeko. Ulertu behar da indarkeria matxistak botere-harremanekin gurutzatzen direla, eta haiek sortzen dituzten egoerak antzematen ikasi behar da.

Eta zein da umeekin egiten diren saio horien helburua?

Marko orokor bat ezartzea, ikusteko zein den egungo egoera, eta ulertzea egoera horren aurrean ez gaudela bakarrik. Hau da, indarkeria matxista ez dela fenomeno indibiduala, baizik eta gizarte osoan gertatzen den kontua; emakumeok amankomunean bizi dugun zerbait dela.

Nola transmititzen diezu ideia hori?

Laguntzen diet bizi izandako esperientziak identifikatzen, eta haiei aurre egiteko tresna berbalak eta fisikoak irakasten dizkiet. Umeen kasuan, interesgarria da ikustea nola gurutzatzen diren adina eta generoa: neskatoak direnez, askotan helduengandik jasotzen dituzte bidezkoak ez diren egoerak, errespetu faltak eta abusuzko jarrerak.

Beraz, egunerokotasunean gerta daitezkeen egoeretan oinarrituta egiten duzue lan...

Hori da asmoa. Bizi izan dituzten eszena zehatzak antzeztzen ditugu, ikus dezaten nola erantzun dezaketen, bakarka zein

elkarrekin: eskolako patioan bizi dituzten egoerak, lagunenean artean edo kalean, adibidez.

Lantzen duzue nola gainditu daitezkeen beldurra?

Bai, eta interesgarria da beldurra amorru bilakatzea, horrek neskak indartzen dituelako. Hau da, ohartzen direnean beldurra sortzen dela zapalduta sentitzen direnean, emozio hori identifikatzen dutenean, beldurretik amorrura pasatu daitezke. Beldurra oso emozio feminizatua da, eta gizarteak baimen handiagoa ematen digu beldurtuta egoteko haserre egoteko baino. Izan ere, beldurra indarrak kentzen dizkigu; amorrurak, aldiz, piztu, bai fisikoki, bai mentalki. Haserrearen ekin tzara eramaten gaitu, gure eskubideak aldarrikatzera.

Nola adierazi dezakete amorru hori?

Berariaz lantzen ditugu ahotsa, begirada, gorputzaren jarrera, arnasketa... Bitxia bada ere, neskek errazago egiten dute garrasi, errazago aktibatzen dute kontrol galeratzat ikusi daitezkeen hori. Gerora, nerabzarotik aurrera, askotan galdu egiten da haien onetik ateratzeko gaitasuna.

Baimena eta muga pertsonalak ere jorratzen dituzue?

Bai; masajeen bitartez lantzen ditugu: zer eta nola nahi duten eskatzen dute, eta ikasten dute ondokoa entzuten. Eskaerak eta eskaintzak praktikan jartzen ditugu, entzunak izateko esperientzia izan dezaten, aintzat hartuak sentitu daitezen.

Eta tarteak egiten diozue autodefentsa fisikoari ere?

Indar fisikoarekin konektatzeko ariketak egiten ditugu, bai. Pentsatzen dugu indar fisikoak jotzea dela, edo borroka egiteko teknika landua izatea, baina, kasu honetan, gehiago da lurrera sustraitzen gaituen indarra nabaritzea, norberaren pisua sentitzea, grabitatearena... Indar horrek buruan eragiten du, jarrerara egokia sortuz. Haurrek

sorpresa handia hartzen dute euren indarra aktibatzen dela ikusten dutenean, egunerokotasunean ez dutelako aktibatzen. Zergatik da garrantzitsua umeak gai horietan trebatzen hastea txikitatik?

Adierazpen-bide guztiak zabalik dituztelako. Gero, ixten joaten dira, sozializazioaren eraginez, eta epai eta arau sozialengatik.

Saioa bukatutakoan, aldaketarik sumatzen duzu umeengan?

Bai; beste perspektiba batekin irteten dira. Alde batetik, ahaldunduago daude, euren indar fisiko eta emozionala probatu dutelako. Gainera, hasten dira ikasten nork bere iparrratza balioesten, eta barneratzen ez dituztela jasan behar ezerosotasunak eta bidegabeak diren egoerak. Ez dutela *neska zintzoaren* jarrerarik izan behar, ezetz esan dezaketela, eta besteek ezetz hori errespetatu egin behar dutela. Bestalde, garrantzitsua da jakitea hori guztiori ondo pasatzen duten bitartean egin dezaketela, modu ludikoan. Larriak ez diren egoeretan, plazera ere aktibatu daiteke, lagunekin bat egiten dutenean, edo pertsona bat atzera botatzen dutenean. Horrek poztasuna ematen du.

"Bizi izan dituzten eszenak antzeztzen ditugu, ikus dezaten nola erantzun dezaketen"

"Izua areagotu barik, gurasoek zintzotasunez erantzun behar dituzte galderak"



Ageda Blasco terapeuta espezializatuta dago traumatetan. A. BLASCO

Nola jarraitu daiteke ikastaroan landutakoa etxean lantzen?

Gurasoekin praktikatu ditzakete saioan landutako egoerak, eta praktikan ipini esperientzia balioztatzaileak ere. Adibidez, gurasoek haurren ahotsa eta nahia errespetatu beharko litzukete, eta ez eskatu *neska zintzoa* izateko. Izan ere, genero-arauak oso zorrotzak dira prototipo horretan, eta tarte txikia uzten diete ekintzei. Neskek eskubidea dute zatarrak

izateko eta gauzak ondo ez egiteko.

Eta zein aholku emango zenieke gurasoei indarkeriaren inguruan neskek egiten dituzten galderak erantzuteko?

Izua areagotu barik, zintzotasunez erantzutea. Onartzea munduan etsaitasuna ere badagoela, bidegabekeria, baina gai izango direla hari aurre egiteko, batez ere elkarrekin badaude, eta hori feminismoak eskainiko die.



Otsailaren 21eko saioan 6 eta 8 urte bitarteko 9 umeek parte hartu zuten. A. BLASCO



Udaletxe parean elkartu ziren iaz, eta Emakumeen ahalduntzea irudikatuz dantza emanaldia egin zuten. LÓREA ARREGI



Artea, kirola, osasuna eta umorea Martxoaren 8ko egitarauaren erdigunean

Berdintasun Kontseiluak eta Nahikari Emakumeen Elkarteak aurkeztu dute programa

Ander Gomez MALLABIA

Martxoaren 8an, domeka, kirolaren eta artearen artean aukeratu ahalko dute Mallabiko emakumeek. 36. Lilatoia izango da Donostian, eta, urtero mallabitar ugari bertaratzen direnez, autobus zerbitzua jarri du Udalak. 08:30ean aterako da, petriletik, eta 18:30ean bueltatuko da Donostiatik. Eguerdian, *Emakume palestinar baten begirada* erakusketa irekiko dute. Euskal Herrira bizitzera etorritako Rouhaifa Kassem palestinarren obrek osatuko dute eta artista bera bertan egongo da, aurkezpena egiten. Margolanak bi astez egongo dira ikusgai, Kontzejuzarrean. Horren ondoren, 12:30ean, bideo-foruma egingo dute, *La boda de Rosa* filmaren proiektioarekin. 45 urteko emakume baten istorioa kontatzen du: betidanik besteen beharrak lehenesten aritu eta gero, bere burua erdigunean jarri eta bere bizitza berreskuratzeke erabakia hartzen du.

Bizi-kalitatea, ahalduntzea eta osasuna genero ikuspegitik lantzen dituen Emakumeen Osasun Eskolak bi saio egingo ditu: lehena martxoaren 6an izango da, barikua, 19:00etan, Kontzejuzarrean, eta gaixotasun kardiobaskularrak, min kronikoak eta migrainak izango dira hizpide; bestea hilaren 15ean egingo da, domeka, 12:30ean, eta menopausiaren eta andropausiaren arteko desberdintasunak eta osteoporosia landuko dituzte.

Garrantzitsuena Emakumeen Nazioarteko Eguna izango da, Martxoaren 8an. Kontzejuzar parean egingo dute aurtengo elkarretaratzea eta adierazpen instituzionalaren irakurketa, 12:15ean. Ondoren, 12:30ean, helduentzako *In crescendo* clown ikuskizuna izango da bertan.

Learreta-Markina eskola eta pilota elkarteak batu egin dira Nahikari elkarteke kideek eta Mallabiko Udalak antolatutakoez

gain, bestelako ekintzak hartuko ditu M8ko egitarauak. Alde batetik, eskolako ikasleak eurentzat erreferente diren emakumeen inguruko proiektua lantzen ari dira. Behin bukatuta, Kontzejuzarreko paretetan zintzilikatuko dituzte egungo zein historiako emakumeok, herriar guztiek ikus ditzaten. Erakusketa martxoaren 6an, 8an eta 15ean ikusi ahalko da.

Bestetik, frontoian emakumeen presentziari ikusgarritasuna ematen dioten txapelketa guztiak programaziora batu dira, hala nola elite mailako emakumezkoen Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketa, adimen urritasuna duten emakumeen parte-hartzea izan duen Euskal Pilota Egokituko Bizkaiko Irekia eta bihar jokatuiko den binakako txapelketa, emakume pilotari profesionalen Ados pilota elkarrekin antolatua. AD Mallabia FTK antolatutako frontenis txapelketa mistoak itxiko du egitaraua, martxoaren 21ean.



Berdez, Galdos eta Murillo; gorriz, Zulaika eta Diez, Mallabiko hitzorduan. EEPF

Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketa Mallabian erabakiko da

Mallabiko pilotalekuan izan dute ligako azken hitzordua, eta finala jokatzeko bueltatuko dira, datorren asteburuan

A. Gomez

Hernani CD, Iruñeko Oberena, Orozkoko Olgetan, Gasteizko Errekaleor eta Iurretako Olaburu klubetako palariak ari dira emakumezkoen elite mailako Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketaren hamabigarren aldia jokatzen. Launa aurrelari eta atzelari daude, eta bikotekideak txandakatzen dituzte hitzordu bakoitzean. Liga faseak hiru jardunaldi izan ditu: lehena Ogetan izan zen, hilaren 7an, Gasteizen; bigarrena, hilaren 14an, Hernanin; eta azkena, zapatuan, hilaren 21ean, Mallabian.

Olatz Zulaikak (Olgetan) eta Ane Diezek (Olaburu) Uxue Morillorrek (Oberena) eta Leire Galdosekin (Hernani CD) neurtu zituzten indarrak lehenengo, eta Murillo-Galdos bikoteak lortu zituen 30 tantoak, Zulaika-Diez

aurkariak 24 tantoan lagata. Bigarren partidari, Aroa Torres (Errekaleor) eta Garazi Eizmendi (Hernani CD) Haizea Salanuevaren eta Paula Gorostiagaren (biak Oberena) kontra lehiatu ziren, eta bi taldekideak gailendu ziren Torres-Eizmendi bikotearen kontra, 18-30 markagailuan.

Orain, finalerdiak jokatuko dituzte. Ligan lehenengo geratu diren aurrelariak eta atzelariak laugarren bikotearen kontra jokatuko dute (Murillo-Diez eta Zulaika-Eizmendi), eta bigarrenak hirugarrenaren kontra (Salanueva-Gorostiaga eta Torres-Galdos). Datorren astean, martxoaren 7an, berriz ere bueltatuko dira Mallabia I. Pilotalekura, eta bertan erabakiko da Euskal Herriko Gomazko Paletako bikote txapeladuna. Partida 17:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

Eskupilotako binakakoa bihar, zapatua

Abenduan hasitako Ados Pilota Elkarrekin txapelketa martxoan bukatuko da, Azpeitian. Bidean 25 herri bisitatuko ditu; tartean, Mallabia, hilaren 28an, 17:00etan. Bi partida jokatuiko dira: Barrokak-Perez eta Gomez-Agirre, batetik; eta Iturriaga-Orbegozo eta Oskoz-Arrastia, bestetik. Iaz galtzaile izan ziren Oskoz eta Agirre irabazten saiatuko dira aurtengo; Barrokak, Arrastia eta Orbegozo, berriz, hura berresten.



Maddi Barrokak, iazko txapelketan, Mallabiko hitzorduan. ADOS PILOTA



KORRIKA

Hogeita bost eragilek eroango dute Korrikaren testigua herrian

Zehaztu dute martxoaren 28an testigua eroango duten eragileen zerrenda

Egoitz Unamuno SORALUZE

Joan den asteko barikuan, otsailaren 20an, herriko hainbat eragiletako ordezkariak elkartu ziren Korrika batzordearen bigarren bilera egiteko. Bertan hainbat lan aurreratu zituzten martxoaren 19an Atharratzen hasi eta 29an Bilbon amaituko den euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren 24. aldiari laguntzeko.

25 talde

Hasteko, Soraluzeko ibilbidearen lekuko aldaketen eta horietako bakoitzean Korrikaren testigua eroango duten 25 taldeen zerrenda osatu zuten. Taldeek datozen egunetan jakinaraziko dute zein pertsonak eroango duen testigua dagokion tartean, eta baita ere zenbatekoa izango den helduak alfabetatzeko erakundeari egingo dion ekarpen ekonomikoa. Horren harira, AEK-ko ordezkariak jakinarazi zuten lekuko aldaketa-tarte bakoitzaren prezioa 475 eurokoa izango dela.

Kontzertua, zirkua, ipuina...

Bestalde, Korrika Kulturalak izango duen egitaraua ere osa-



Herriko hainbat eragile, Korrikaren bigarren batzordean. E.U.

tu zuten bileran: bihar hasiko da, otsailak 28, Zuhaitz Eguna-ekin, eta martxoaren 28an, Korrika Soraluzetik pasatuko den egunean, Alarma Morea taldeak emango duen kontzertuarekin amaituko da egitaraua.

Tartean izango dira, esaterako, Basalgo zentral eolikoaren aurkako mendi ibilaldia, Aroa planaren aurkezpena, *Ekain-Txou* zirku emanaldia, ipuin kontaketa, bakarrizketak, Korrika Txikia, elektrotxaranga eta zumba beroketa Korrika herrian pasatuko den egunean...

Egitaraua ondoko taulan dago ikusgai.

Petoak, 6 euroan

Azkenik, AEK-k jakinarazi zuen Korrikako petoak salduko dituela, 6 euroan. Horiek eskatzeko Soraluzeko AEK euskaltegira jo behar da, eta, ondoren, bertan jaso ahalko dira –euskaltegia kiroldegiko kulturgunean dago, liburutegiaren parean–; eta, bestela, martxoaren 18an banatuko dituzte, 18:00etan, Plaza Zaharreko karpan.

Lekuko aldaketak

- **Ansolan:** Soraluze FT eta Marras IT
- **Alkideban:** Pilota Elkartea eta Gure Esku
- **Elesan:** Keixeta eta Institutua
- **Gabolatsen:** Musika Eskola, BertSora eta abesbatza
- **Bidegorrian:** AEK, Urrats eta Pil-pilean
- **Santa Anan:** Atxolin, eskola, Itxaropena eta Katamaran
- **Gabolatsen:** Sortu, Bildu, Udala eta EAJ
- **Elesan:** GOL, LAB, Bizikale
- **Unamunon:** Harrera eta Arrano

Korrika Txikia barikuan

Korrika pasatu bezperan, barikuan egingo dute Korrika Txikia Soraluzen. Hona hemen egitaraua:

- **11:00** Korrika Txikiaren irteera
- **16:30** Tailerrak kalean
- **18:00** Buruhandiak + buruarinak + musikariak
- **18:30** Mugi Boogie DJa

'Pianoaz gozatzen' jaialdia zapatuan Herri Antzokian



Henao irakaslea hiru ikaslerekin. D.U.

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek antolatuta, *Pianoaz gozatzen* izena duen III. piano jaialdia egingo dute zapatuan. 36 udalerritako 500 piano-jotzailek baino gehiagok parte hartuko dute Gipuzkoako eta Bizkaiko zazpi udalerritan egingo diren emanaldietan. Udalerritako bat izango da Soraluze. Denera, 85 ikasle izango dira pianoa jotzen, eta emanaldirako propio alokatuko da isats-erdiko piano bat. Lau eskutara ere joko dira piezak. Hiru saio izango dira Herri Antzokian, 09:30ean, 11:00etan eta 12:30ean.

Trantsizio energetikoa aztergai Servert adituaren eskutik

Datorren astean, Mendiak Bizirik taldearen eskutik, Basalgo Zentral Eolikoaren kontrako bi jarduera izango dira. Batetik, Raoul Servert adituak *Energia berriztagarri bidezko trantsizio energetikoa. Begirada kritiko bat: lurralde antolaketa edo espekulazioa?* hitzaldia egingo du, martxoaren 5ean, Tolarekuan, 18:30ean. Servert, besteak beste, geografoa da, lau master ditu eta Araudi SLPko Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia da.

Bestetik, zapatuan, martxoaren 7an, mendi ibilaldia izango da zentrala eraiki nahi duten gunera. Lau udalerritik abiatuko dira martxak: Soraluzetik, Eibartik, Elgetatik eta Elgoibartik. Soraluzeren kasuan, 09:00etan abiatuko dira bertakoak eta Bergaratik etorriko direnak. Helburua da 11:00etan elkartzea guztiak Topinburun. Guztiaren berri emateko, berriz, mahaia jarriko dituzte otsailaren 27an eta martxoaren 6an, 19:00etatik 21:00etara.

Historiaurreko museoa egingo dute DBH-1eko 43 ikaslek

Datorren eguaztenean eta egunean, historiaurreko museoa izango da kultur gunean. Institutuko 43 ikasle ari dira museorako piezak lantzen, hiru garaitakoak: Paleolitoa, Neolitoa eta Metal Aroa, Ander Galparsoro eta Idoia Ilarduia irakasleen gidaritzapean. Hark esplikatu duenez, museora bisitak egiteko aukera izango da: eguaztenean, ikasleek –institutua zein LH–, irakasleek eta DBH-1eko gurasoek; eta egunean, herritarrek ere bai, 08:30-09:10era edo 09:20-10:05era.



ANDER GALPARSORO

"Oso behatzailea naiz. Gauzekin ohartzen naiz eta istorio asko datozkit irudimenera"

JOSE RAMON PIÑEIRO IDAZLEA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

La sed de almas de Belial saga-ko zazpigarren eta azken liburua argitaratu berri du Jose Ramon Piñeiro idazleak (Mutriku, 1974). *Luci* izenburua du, Lucifer deabruaren izen txikigarria. Izan ere, zazpi deabruetan daude oinarrituta sagako liburuok. Zazpi liburu horiez gain, beste bi ere idatzi ditu Piñeirok: *La Caja* eta *Aida*, *El Caso 13/3*, hain zuzen ere.

2020an argitaratu zenuen *La sed de almas de Belial*; sei urte geroago, saga ixten duen zazpigarren eta azken liburua argitaratu duzu. Eta bidean beste bi liburu ere idatzi dituzu. Zelan egiten da hori?

Irudimenarekin. Nik beti topatzen dut denbora, irakurtzeko zein idazteko. Eta denok topatzen dugu denbora nahi dugun horretarako. *Luci*-ren azken zatirako, pasatu nituen hamar ordu jarraian idazten, goizaldera arte. Eta liburua bera sei hilabeteetan idatzi dut. Irudimenean, buruan, ditut istorioak; krokisa egin eta gero idazten ditut liburuak.

Istoriok zelan datozkizu burura?

Izatez, oso behatzailea naiz. Gauzekin ohartzen naiz, eta istorio asko datozkit irudimenera. Adibidez, *La sed de almas de Belial* sagaren istoriorako inspirazioa Mutrikuko arbola batek eman zidan, pinuz inguratutako pago batek; berezia da, bat-batean ikusi nuen, lekuz kanpo balego bezala. *La caja* libururako istorioa, berri, Santiago Camacho-ren podcast baten ondoren etorri zitzaidan. Kapaz naiz argazki bat ikusita istorio bat imajinatzeko. Horrez aparte, nire liburuetan gertakari historikoak ere azaltzen dira: Gasteizko Sakamantekas, Trasmoz, Puerto Urracoko hilketak, Otxate bizilagunak zituenean...

Idatzitako liburuetatik zein egin zaizu zailena eta zein errazena?

Zailena, akaso, *La caja*, hartu nuelako erronka moduan egunean kapitulu bat idatzi eta argitaratzea. *Wattpad* webgunean egin nuen hori. 35 egunez jarraian. Lanetik iritsi, eta kapituluak idatzi. Zaila izan zen. Baina, era berean, libururik



Jose Ramon Piñeiro, *Luci* azken liburuarekin, astelehenean, zubian. U.M.Z.

errazena ere izan zen, 35 egunean hasi eta bukatu nuelako. Bestalde, zaila egin zaidana da zazpi liburuetan istorioari eustea. Eta benetan zailena da berrirakurketa egitean aldaketei, zuzenketei eta gehikuntzei amaiera ematea.

Eta gustagarriena?

Lehena, *La sed de almas de Belial*, harro sentitu nintzelako. Eta, akaso, ondoen ibili nintzen *La oscuridad de Azazel* idazten; ez nuen batere pisurik sentitu.

Zein saldu da ondoen?

Lehen liburua eta *La caja*. Azken horren kasuan, 1.500 bat irakurraldi izan zituen online, eta haren feedbacka ere polita izan zen. Gehien saltzen dut Amazonen, digitalean, eta Espainian. Hori bai, kuriositate gisa, AE-Betan *La sed de almas de Belial* liburuen kopuru polita saldu da. Irabazirik ez dut lortu, bai-

na hori ez da nire helburua, idaztea baizik.

***Luci* azken liburuak, sagako besteak bezala, Mutriku hasten da?**

Bai. Hango kaian. Sagako protagonistetako bat itsasora begira dago, eta ekaitza dator. Hondoan Kalbarioko ermita ikusten da. Horrela hasten da. Horixe da liburuen azala.

Saga bukatuta, seguru baduzula beste proiekturen bat buruan...

Buruan daukat errelato motz bat, *El Observador/El lector de rostros/El lector de miradas...* halako zerbait. Istoria izango da terraza batean eserita dagoen pertsona batek pasatzen ikusten dituen pertsonen aurpegietan euren iragana ikusten duela.

Institutuan hasi zinen idazten; dagoeneko egin duzu ibilbidea. Idazle moduan igarri duzu aldaketarik?

Bai. 2025eko azaroan eta abenduan idazleentzako bi tailerretan egon naiz Arrasaten. Horren ondoren, nire narratiba aldatu egin da. Lehen, irakurtzeko errazago egiten nituen liburuak; orain, hori ere egiten dut, baina nire narratiba helduagoa da. Tailerretara joaten segitzeko asmoa dut, eta interesatzen zaizkit irakurle klubak ere.

"'Luci' liburuaren azken zatia idazten pasatu nituen hamar ordu jarraian, goizaldera arte"



Vitalia Samuilova, lan batzuk atzean dituela. OPEN PORTFOLIO

"Goyaren mailako" grabatugile Samuilova, Oreka Art galerian

Lituaniako Vitalia Samuilovaren grabatuak izango dira ikusgai martxoaren 6tik apirilaren 28ra bitartean

U.M.Z. SORALUZE

Gaur zortzi, martxoaren 6an, erakusketa bat inauguratuko dute Oreka Art galerian, 19:00etan. "Bikaina" eta "ezohikoa", Alberto Ramirez galerista eta antolatzailearen esanetan. Vitalia Samuilova lituaniarrak egindako grabatuen erakusketa da, eta Ramirezek haren grabatuak Francisco de Goya artista-renaren pare jartzen ditu.

Soraluzeko arte galeriara 35 bat grabatu eramango ditu Samuilovak; tartean, hamabost estampa original dituen *Encuentro* seriea, guztiak ere edizio bakarretan egindakoak, 2025eko abuztuaren.

Artistak bere lana deskribatzerakoan dioenez, "bisualki eta grafikoki gorputzak elkartzea interesatzen" zaio, "keinu kolektiboak, izakien gizakiek elkarri begiratzen diote, elkar

aurkitzen dute, elkarri eusten diote... Sufrimendua dago keinu horietan, noski, baina baita erresistentzia eta elkartasuna ere, hori baita garrantzitsua. Konturatzen naiz ez zaigula ezer gertatzen indibidualki bakarrik: tragedia kolektiboak dira. Era berean, konturatzen naiz artistak ez daudela inoiz bakarrik, ezta euren emozioekin ere".

FIGeko Open Portfolio saria

Ramirezek kontatu du Bilboko FIG azokan deskubritu zuela Samuilova. 2024an, FIGeko Open Portfolio saria eskuratu zuen Lituaniako artistak, eta 2025eko azaroan berririo izan zen bertan, erakusketa egiten. Orain, Soraluzera etorriko da, bizileku duen Paristik. Erakusketak, berri, ezohiko iraupena izango du, hilabete barik bi hilabetez egongo baita, apirilaren 28ra arte.

OSTELA HARATEGIA

Enkarguak hartzen ditugu
Gertuko ganadua
Etxeko tripa, txistora,
salbitxa eta mingaina

Etxebarria 5
Telefonoa: 943 75 23 75

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gogorak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larumbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larumbatak: 08:30-13:00
Igandeak: 08:30-14:30

Gogorak, ogia,
prentsa, pastak,
berbotak...
Etxera emanateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

Txoko

Egunean menua,
plater konbinatuak,
hamburguesak,
ogitartekoak,
rakiak,
pizkak,
gogorak...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

"Emanaldi bat egin ondoren sentitzen dugun harrotasuna da Kulunkaren motorra"

ALAITZ IZAGA KULUNKA DANTZA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Izaro Aulestiarte

Txikitan hasi zen Alaitz Izaga (Deba, 1979) balletean, eta dantzan dabil ordutik. Afizioa ogibide bihurtu, eta hamalau bat urte daramatza dagoeneko Kulunka Dantza Eskola gidatzen; 90 ikasle ditu gaur egun. Ez da geldirik egotekoa, baina tarte bat hartu eta patxadaz erantzun ditu BARRENAren galderak, Zesterokua plazako dantza gelan. **Noiz eta nola sortu zen Kulunka? Zer oroitzapen gordetzen duzu?**

2012an hasi zen, baina Kulunka beste talde batzuen ondorioa da. 1989. urte inguruan herritar batzuek Escuela de Ballet de Deba sortu zuten, eta hortik dator Kulunka, hortik dator dena. Urteetan hainbat gestio izan zituen: Biraka, Triska... eta 2012an Ele-ne Bravok eta biok sortu genuen Kulunka. Aurreko zuzendari Josu Mugikak utzi egin behar izan zuen, eta Deban balletik eta dantzarik gabe gelditzen ginela ikusita sortu zen ideia. Oso garai politak izan ziren. Nerbio asko, beldur asko... Orain pentsatzen dut ezjakintasunaren indar horrekin hasi ginela. Ez genekien non sartzen ginen eta ez genuen pentsatzen Kulunka hau izango zenik gaur egun.

Zer dantza mota lantzen dituzue?

Oinarrian ballet klasikoa lantzen dugu, baina eskola irekia da eta beste estilo batzuk ere jorratzen ditugu. Urte askotan dantza garaikidea eman dugu; orain ez, irakasle faltagatik, baina tailer bat antolatu dugu. Eta asko gus-

tatzen zaidan jazz estiloko eskolak ere ematen ditugu.

Zeintzuk dira urtean zehar egiten dituzuen emanaldi garrantzitsuenak?

Bi ekimen potolo antolatzen ditugu: kurtso bukaerako jaialdia ekainean eta Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuz errekan egiten dugun barra klasiakoaren erakustaldia martxoan edo apirilean. Gainera, Debako beste ekitaldi batzuetan ere parte hartzen dugu: Arimen Gaua, Begiradak, orain Korrikaren inguruan ariko gara...

Zenbat kide ditu egun Kulunkak?

90 dantzari gara. Umeak 4 urte-tik aurrera hasten dira eskolan, eta hortik aurrera adina librea da, nahi denera arte... Nagusien eta helduen taldeak ere baditugu, eta indarra hartzen ari dira. Adinaren arabera sailkatzen ditugu dantzariak, eta orain hamaika taldetan banatuta daude. **Gizonezkoak ez dira asko...**

Mutilak etortzeko deseatzten gaude. Eskolan bertan babestuta sentitzen direla uste dut. Mutilak dantzari izan dira antzinatik, baina oraindik gizarteak ez du onartzen, eta mutil gutxi ditugu. Dantza eskolatik kanpo datoz arazoak, kalean, lagunekin... komentarioak entzun behar izaten dituzte, eta horren ondorio izaten da, normalean, dantza lagatzea. Pena da, eta uste dut berdintasunaren inguruan gauza asko egin behar ditugula.

Zein balio transmititzen ditu dantzak?

Beti esan izan da balleta dizi-plina dela, eta hala da. Pertsona

batek ondo dantzatu nahi badu, eguneroko lana egin behar du, pauso berak errepikatu, gorputza egunero zuzendu, koreografiak mila aldiz egin eta konstantea izan helburua lortzeko. Dena den, oso garrantzitsua den beste gauza bat ere lantzen dugu: talde-lana. Eta bakoitzaren izaera ere nabarmendu nahi nuke. Dantza dizi-plina da, baina artea ere bai, eta bakoitzaren izaera eta dantzatzeko era ateratzea ere garrantzitsua da. Dantzari bakoitza pertsona bat da, bere izaera atera egin behar da, eta hori erakustea polita da.

Zerk asetzen zaitu irakasle gisa?

Ikasle baten bilakaera ikusteak, bai dantzari bezala, bai pertsona bezala.

Eta zuri zer eman dizu dantzak, Alaitz? Zer ikasi duzu zuk?

Askok eman dit, dena. Nire bizitza beti egon da dantzari lotua. Emozioak eman dizkit, batez ere, eta indarra, eta horrek asko markatu du nire izaera. Eta lagunak ere eman dizkit; taldeko laguntasuna oso berezia da.

Noiztik zara dantzari?

8 urterekin hasi nintzen. Txikitatik gustatzen zitzaizkidan gauza hauek, baina gimnasia errit-

"Mutilak dantzari izan dira antzinatik, baina oraindik gizarteak ez du onartzen"



Alaitz Izaga, BARRENArekin izandako elkarriketaren une batean. ALEX TURRILLAS

mikoa egin nahi nuen. Gurasoak ibili ziren begira Eibarrera joateko edo... baina ezin izan zen. Lagun batzuek judoan eman zuten izena, eta nik ere urte asko egin nituen kirol horretan, Escuela de Ballet de Deba sortu zuten arte. Balletean hasi nintzen hemen, lehengo Zesterokua gimnasioan, oraingo Kulunkaren lokalean, 1988an. Ordutik nabil dantzan, eta hona bueltatu gara. **Zein izan da orain arteko bidean unerik hunkigarriena?**

Momentu hunkigarri eta polit asko daude, baina ezingo nuke

"Dantzari bakoitza pertsona bat da, bere izaera atera egin behar da, eta hori erakustea polita da"

bat esan. Talde bat oholtzara irteten den bakoitzean gauzak pasatzen dira, tripak bueltak ematen ditu... Emanaldi guztiak dira hunkigarriak eta beti sentitzen naiz harro. Eta, nire ustez, emanaldi bat egin ondoren sentitzen dugun harrotasuna da Kulunkaren motorra; harrotasun eta motor hori gabe ez litzateke Kulunka existituko. Emanaldi bat egiten dugun guztietan, bidean egon diren oztopoak ahaztu eta merezi zuela pentsatzen duzu, eta hurrengorako deitzen dizutenean baietz esaten duzu. **Aurrera begira, zein da erronka nagusia?**

Kulunkak aurrera jarraitzea, existitzen jarraitzea, eta herriak dantzan jarraitzea. Horretarako, gu bezalako taldeak bizirik mantentzeko, oso garrantzitsua da baliabideak, azpiegiturak, laguntza ekonomikoak... izatea.

NIRE USTEZ

Zeren zain zeure burua zaintzeko?



INMA ALBERDI

Bizitza osoan dugun jarduera oso konplexua da zaintza. Gertutik bizi ezean ezezaguna... *Begi itsuek negarrik ez; a ze egia!* Gizartea emakumeek egiten dituzten zaintza lanei esker sostengatzen da, nahiz eta

ikusezinak eta aitortza falta izan. Etxe kontutzat dugu, baina ardura guztiona da eta etorkizun jasagarria izateko funtsezkoa da kontzientzia, besteeikiko enpatia eta erantzukizun partekatua. Ezagutza badago, baina gehiegizko ez-egina. Ezinbestekoa da begirada zabal, inklusibo eta positiboago baterantz aurrera egitea. Askok oso bakarrik bizi

dira beren urrezko kaiolan. Lehen genuen auzokideen arteko konplizitate itzuli behar dugu, hobeto elkar zaindiz. Bizikidetzan jarri behar da arreta, familia eta komunitate sareak indartu eta ingurunea irigarria egin. Errealitate hau ikusita, geure burua zaindu dezagun, ariketa fisikoa eta bizitza sozial aktiboa mantenduz, autonomoak izaten jarraitzeko.

TEMPUR PRO berria, benetan konpontzailea den atsedeen batez gozatu ezazu.

Presioa arintzeko propietate frogatuak.

Euskarri eta erosotasun absolutua eskaintzen du.

Gorputzaren formara, berora eta pisura primeran egokitzen da.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

Hecetu Welo taldeak bihar aurkeztuko du lehenengo diskoa, Gaztetxean

Nerea Bedialauneta Alkorta

Hecetu Welo musika taldeak duela gutxi kaleratu duen estreinako diskoa aurkeztuko du bihar, otsailaren 28an, Debako Gaztetxean. Ekitaldia Debarock Kolektiboak antolatu du. Kontzertua 20:00etan hasiko da, baina ateak 19:00etan irekiko dituzte. Sarrerak 5 euro balioko du.

Iasnaia Arruti (teklatuak), Nacho Campo (bateria), Ignacio Polo-Palau (baxua), Iker Zubizarreta (gitarra) eta Pablo Berrizbeitia (ahotsa eta gitarra) dira boskoteko kideak. Haiek sortutako hamabi kantuz osatuta dago taldearen izen bera daraman *Hecetu Welo* lana, eta entzuleek eta zaleek proposamen berria zuzenean ezagutzeko aukera izango dute.

Gainera, lana Gaztetxean bertan eskuratu ahal izango da. Pablo Berrizbeitia kide debarrak azaldu duenez, lehen lan hori

20 euroren truke jarriko dute salgai. "Zuzenekoetan eta taldekideen bitartez erosi ahal izango da", zehaztu du.

Koda taldearekin

Aurkezpen kontzertuan ez dira bakarrik arituko: Debako Koda taldeko kideak ere igoko dira

oholtzara. Bi taldeen zuzenekoek giro berezia sortzea espero da, eta Gaztetxea musikaz girotea.

Saio nagusiaren ondoren, baina, musikak ez du etenik izango: hain zuzen ere, bini-lo-pintxada izango da, Brain Squeezer & Le Rougaron-en eskutik, gaua amaitzeko.



Hecetu Welo taldeko kideak. MARTIN LORES

Zabalik da Animadeba jaialdiaren 19. aldirako filmen deialdia

N.B.A.

Debako Animaziozko Nazioarteko Zinema Jaialdiaren (Animadeba) hemeretzigarren aldia irailaren 9tik 12ra bitartean izango da aurten.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, prestaketa-lanak abian dira dagoeneko, eta film laburrak aurkezteko izen-emate epea zabaldu dute.

Edozein genero, gai edo herrialdetako animaziozko film laburrek parte hartu ahal izango dute, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera ekoiztiak edo sortuak badira.

20 minutu baino gutxiago

Piezek, bestalde, ezingo dute 20 minutu baino gehiago iraun, eta ezinbestekoa da gaztelaniazkoak

ez diren film laburren bertsio originalak hizkuntza horretan azpiztatuta aurkeztea.

Lanak FilmFreeway plataformaren bidez soilik bidali ahal izango dira. Materiala aurkezteko azken eguna apirilaren 1a izango da.

Behin balorazio batzordeak proposamenak aztertuta, hautatutako lanen arduradunekin harremanetan jarriko dira antolatzaileak, proiektzioarako artxiboa eskatzeko; kasu horretan, maiatzaren 17a izango da materiala bidaltzeko azken eguna.



Zauritutako marrazo bat igerian. ISAIAS CRUZ IRUJO

Itsaspeko munduaren edertasuna erakutsiko du CIMASUBek martxoan

Hamasei film labur eta bost dokumental proiektatuko dituzte, martxoaren 5ean, 12an eta 26an, Kultur Elkartean

N.B.A.

Debako Kultur Elkarte Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren (CIMASUB) ohiko geldialdi finkoetako bat izan da urtero, eta aurten ere hala izango dela jakinarazi dute jaialdia antolatzen duten Real Sociedad Itsaspekoak urpekarien taldeko kideek. Martxoaren 5etik 26era ozeanoen edertasuna esploratzeko eta bertako sekretuak ezagutzeko aukera paregabea izango da bertan.

Jaialdi ibiltariak 27. aldia ospatzen du aurten, eta, *Egia zure begien aurrean* lelopean, martxoan hiru proiektzio eta jarduek bereziak ekarriko ditu herriera, itsas hondoa ezagutarazteko eta itsasoarekiko errespetua transmititzeko asmoz.

Emanaldi nagusiak Kultur Elkartean izango dira, 18:30ean, doako sarrerarekin. Zikloa mar-

txoaren 5ean abiatuko da, Bronztzeko Saioarekin; martxoaren 12an izango du jarraipena, Zilarrezko Saioarekin; eta martxoaren 26an iritsiko da amaierara, Urrezko Saioarekin. Guztira, nazioarteko hamasei film labur eta bost dokumental eman go dituzte; hain zuzen, itsaspeko biodibertsitatea, klima aldaketa, plastikoen kutsadura, espezie mehatxatuen egoera eta halako gaiak jorratuko dituzte.

Adin guztientzako eskaintza

Egitaraua ez da publiko orokorrerara mugatuko. Hilaren 12an, 10:00etan, Itsaspeko Txikizikloa egingo da Kultur Elkartean, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta. Horrez gain, hilaren 5ean, Itsaspeko Adinzikloa izango da Eguneko Zentroan, adinekoei eta haien familiei eskainitako saio bereziarekin.



MARTXOAREN 8A

'Elektrizitatea' elkarrekin abesteko deia zabaltu du Iturrian abesbatzak

N.B.A.

Martxoaren 8an harira, herriko emakumeen ahotsak bateratzeko dei egin du Iturrian taldeak. Helburua argia da: ahalik eta emakume gehien biltzea Plaza Zaharrean, Zea Maysen *Elektrizitatea* elkarrekin abesteko.

Antolatzaileek azaldu dutenez, ekitaldia eguerdi partean izango da, nahiz eta ordutegia orain-

dik zehazteke dagoen. Hitzordua behar bezala prestatzeko, aurretiaz entsegu irekia antolatu dute: etzi izango da, martxoaren 1ean, 18:00etan, musika eskolan.

Esperientzia bizitzeko deia

Iturrian abesbatzak sarri interpretatu du *Elektrizitatea*, baina oraingoan urrats bat harago joan nahi izan du, eta herriko

emakume guztiei gonbita egin die. Amaia Zinkunegi zuzendaria azaldu duenez, Sorluzen antzeko ekimen baten berri izan ondoren sortu zen ideia: "Taldekide batek proposatu zidan, eta ederra izan zitekeela iruditu zitzaidan; izan ere, lehenagotik ere bagenuen halako zerbait egiteko gogoia".

Erantsi duenez, "ederra izango da emakume talde handi baten barruan sentitzea eta elkarrekin kantatzea; utzi lotsak alde batera eta etorri esperientzia bizitzera".



Iturrian koruko kideak kantuan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Lasturko aterpetxearen ustiapena, lizitaziora

Kontratuaren aurrekontua 10.000 eurokoa da, BEZik gabe

I.A. ITZIAR

Lasturko plazan kokatuta dagoen aterpetxea kudeatzeko eta usiatzeko lizitazioa argitaratu duela jakinarazi du Itziarko Auzo Udalak. Prozesu irekia da eta espedientea Internet bidez kontsulta daiteke, labur.eus/aterpetxea estekan. Martxoaren 4an, asteazkenez, amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

Orain dela bost urte egin zuten azkeneko aterpetxearen lizitazio-deialdia, eta, ildo beretik, oraingoan ere bost urterako kontratua izango du esleipen-

dunak –sei hilabeteko frogaldi-epea barne–, emakida beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Aurrekontua 10.000 eurokoa da, BEZik gabe. Lizitaziora aurkeztu diren pertsonen 4.000 euroko gutxieneko kanona jarri beharko dute; kopuru horretara iristen ez diren eskaintzak deialditik kanpo geratuko direla jakinarazi du Itziarko Toki Entitate Txikiak.

Internet bidez ez ezik, paperean ere aurkeztu dezakete beren proposamen ekonomikoa interesdunek. Horretarako, Itziarko

bulegora jo beharko dute, Muxiarte kalean.

Zerbitzuak

Esleipendunak aterpetxean ostatu zerbitzua bermatzeaz arduratu beharko du, gosariak ere eskaini ahal izango ditu –aukeran– eta eraikinean bertan kokatuta dagoen Geoparkearen interpretazio zentroa kudeatu beharko du.

Auzo Udalak nabarmendu duenez, "aisialdirako eta bestelako egonaldietarako estimu handia du azpiegitura horrek, bere kokapen egokiari eta inguruan duen paisaia ederrari esker. Donejakue bidearen ondoan kokatua, ostatu ezin hobe da erromesentzat ere". Eraikinak hainbat neurritako logelak, bezero guztientzako egongela bat, erabilera askotariko areto bat eta sukaldea ditu.

Artzabalgo bi herri-bide konpontzeko lanen lizitazio prozesua, zabalik

I.A. DEBA

Debako Udalak Artzabal auzoan kokatutako bi herri-bide publikoen konponketa lanetarako lizitazio prozesua ireki du –029027BN eta 029027.2BN–. Azaldu duenez, bide horiek garrantzi handia dute udalerriko hainbat guneren arteko lotunean, baina kaltetuta daude gaur egun, pitzadurekin eta hondoratutako gunekin, eta horrek zirkulazioa zailtzen du eremuan. Beraz, segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko esku-hartze integrala egingo dutela iragarri dute.

Lanek bi helburu nagusi izango dituzte: batetik, N-634 errepidea eta hilerri berria lotzen dituen tartearen zabalera han-

ditzea, ahal den neurrian, ibilgailuen gurutzaketak segurua goak izan daitezen; bestetik, hilerritik Etxeberri baserriraino doan zatia konpontzea, bertako bide kaltetuenak eta hondoratuak kenduz eta zoladuraren iraunkortasuna eta funtzionaltasuna bermatuz.

Egin beharreko lanen artean daude, besteak beste, bidea garbitzea, eraispinak eta hondeaketak egitea, hormigoiaz eta betelanez arduratzea, asfaltatzea eta pintura-lanak gauzatzea.

84.766,52 euroko aurrekontua

Lan horien aurrekontu osoa 84.766,52 eurokoa izango da eta lanak egiteko epea, berriz, 30



Artzabaltik hilerriara doan bidea. N.B.A.

egun naturalekoa. Proposamenak martxoaren 10era arte aurkeztu daitezke, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio profilaren bidez, Debako Udaleko erregistro elektronikoan edota aurrez aurre Portu kaleko udal bulegoetan.

563 euro bidaliko dituzte Ukrainara

Debako Liburu Solidarioak taldeak azoka solidarioa egin zuen aurreko asteburuan, udaletxeko arkupeetan. Guztira, 563 euro bildu zituzten, eta diru hori Ukrainara bidaliko dute, Txernobylgo zentral nuklearrak kaltetutako Orane herriko premiei erantzuteko. Antolatzaileek bertaratu ziren guztien eskuabaltasuna eskertu dute.



N.B.A.

Europako Jiu-Jitsu Txapelketarako txartela lortu du Haitz Irustak

Zilarrezko domina bat eskuratu du Espainiako Txapelketan; Oinatzek ere maila handiko aurkariei egin die aurre

Nerea Bedialauneta Alkorta

Otsailaren 20tik 22ra jokatu da Espainiako Jiu-Jitsu Txapelketa, Las Palmas Kanaria Handikoan. Hitzordu horretan izan dira Oinatz eta Haitz Irusta Garcia debarrak, euskal selekzioaren koloreak defendatzen.

Bi anaiei artean, Haitzek lortu du emaitzarik esanguratsuenak. Gazteenak bigarren postua eskuratu du *grappling gi* modalitatean, 15 urtez azpiko mailan, 47 kiloz azpiko kategorian. Finalerako bidea garaipenez osatu zuen; aurreko borroka guztiak irabazi zituen eta zuzenean sailkatu zen finalerako. Erabakigarria izan zen Zarauzko Gracie Barra taldeko kide Jakes Royoren aurka izan zuen azken neurraketa, baina puntu bidez galdu egin zuen. Hori bai, Espainiako txapelketan lortutako zilarrezko dominari esker, Europako Jiu-Jitsu Txapelketan parte hartzeko txartela ziurtatuta izango du.

Grapppling borroka-moldean, berriz, seigarren amaitu zuen; final-laurdenetan eten zitaion ibilbidea, Unai Bueno Tamayo euskaldunaren aurka puntu bidez galduta. Oinatz anaiak azal-



Euskal selekzioa. E.F.

du duenez, ez zioten bigarren aukerarik eman.

Hasiberria

Anaia nagusia, berriz, 20 urtez azpikoetan, 58 kiloz azpiko kategorian aritu zen. *Grapppling* borroka-moldean final-zortzirenetan kanporatu zuten, eta hamahirugarren sailkatu zen; *grappling gi* modalitatean, aldiz, final-laurdenetara iritsi zen, eta zazpigarren amaitu zuen.

Aipatu duenez, maila handiko borrokalarien aurka neurtu behar izan zituen indarrak.

Urrezko Kirol Txartela Arrietarentzat



DONOSTIAKO UDALA

Urrezko Kirol Txartelak banatu zituen astelehenean Donostia Kirolak, iaz beren modalitateetan gehien nabarmendu ziren kirolarien lorpenak aitortzeko. Guztira, 82 saritu izan dira aurtan, eta irabazleen zerrendan dago Amagoia Arrieta boccia jokalaria. Deban bizi den kirolariak zilarra lortu zuen iaz ere Espainiako Boccia Txapelketan, eta lorpen haren garrantzia azpimarratzera dator, hain justu, Urrezko Kirol Txartela.

Ezagutarazi zure zerbitzua Debabarreneko herrietan

Zerbitzuen gida

**24 €
Hilean**

24€ren truke, hilerio zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian.

Erakusleihoa

BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleio ikusienetakoa da.

**11.500 ale
astero**

11.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOANI.



ANIMALIAK



iraolagoitia
aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com


Jarri zure
publizitatea



KONPONKETAK



MEKANIKOAK



TXAKURRENTZAKO BAINUA
604 392 529
www.haskak.com
Zure txakurra etxean jaso
eta garbi-garbi itzuliko dizugu.



DEKORAZIOA



IGELTSERITZA



LODOSO KONPONKETAK
Lehoak
Partsiak
Aroztegia metalikoak
PVC aroztegia
Eltxo-sareak
lodosokonponketak@gmail.com
Errosario kalea, 18, behea 943 247 659
20870 Elgoibar 617 585 330



**SORALUZE
MOTOR**
Mendiola ind. 13
Sorluze
676 556 817 - 943 75 21 38
www.soraluze.com



AROTEGIAK



KM design
KIDU MONTAJE
943 76 99 15
larumuntadellidymos.es
www.kmdesign.es
Pol. Aribaga 5
BERGARA



**IZXGURIRE
Igelsentza**
Eraikin berriak - Kalitatezko enaltza
Erreforma - Era guztietako Igelsentza
50 urteko esperientzia - 610 638 913



LEIHOAK



PINTURAK



BIENA
AROTEGIA
Ermuarenbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ELEKTRIZITATEA



ITURGINTZA



ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Aluminio eta PVC aroztegia
662 234 609
odriehioak@gmail.com
Egag Erreka Kalea 2, 20560 SORALUZE
Mota guztietako leihoak, aluminio eta konponketak,
Atsek, leihoak, partsiak, barandilak, eltxo-sareak
eta tolosak jartzen ditugu.



**BIOK
dekorazioa**
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com



**MAR
AROTEGIA**
Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



**laibi25
urte**
Mendiola Industrialdea 13
Sorluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net



SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urzandi Kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

Jarri zure
publizitatea



**ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA**
arunta
dekorazioak
ingurialdea
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

**Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero deitu edo
whatsapp-era idatzi hurrengo telefono zenbakira.**

688 769 657

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adineko pertsonak zaintzen edo etxeak, lokalak eta abar garbitzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat. 652 020 464

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke, orduka, asteburuetan zein ospitalean. 642 852 854

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke. Asteburuetan, jaiegunetan, gauetan... etxean zein ospitalean. Etxeko langile lan egiteko ere prest nago. 631 425 686

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke. Titulu soziosanitarioa eta urteetako esperientzia ditut. 603 727 067

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Erabateko malgutasuna ordutegian. 642 450 647

Elgoibar. Erizain laguntzaile tituluduna naiz eta adinekoak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia. 674 889 487

Elgoibar. Garbiketa lanak egiteko prest nago; elkarteetan, tabernetan nahiz etxeetan. 688 75 86 30

ZORION AGURRAK



DEBA

Maia

Zorionak, Maia!
Martxoaren 3an, 3 urte!
Muxu handi bat ahizpa
Pauleren eta lehengusina
Eireren eta Iratiren
partetik. Primeran
ospatuko dugu.



ELGOIBAR

June


Zorionak, June! Gaur 5
urte! Muxu potolo bat
famiakioren eta, bereziki,
Gorkaren eta Naroaren
partetik. Asko maite
zaitugu.



SORALUZE

Oihan

Zorionak, Oihan!



ELGOIBAR

Lier

Zorionak, Lier! Otsailaren
28an, 10 urte! Jarraitu
beti bezain jator. Maite
zaitugu.

Iragarkia jartzeko

943 744 112
barrena@barrena.eus
www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 655 658 zenbakira, eta zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

10.500 ale astero
+125.000 bisita hilean

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57

administradores

Rosa M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke ea komunitateko lehendakariak langile bat kaleratu dezakeen, etxejabeen batzarrean horrelakorik onartu ez bada.

Langile bat kontratatu edo kaleratzea etxejabeen batzarren eskuduntzako gaia da. Legeak organo horri ematen dio komunitatearen interes orokorren gaia ezagutzeko eta erabakitzeko funtzioa, zerbitzu komun baten aldeko neurri egokienak hartzeko. Ez badago langile hori kaleratzeko akordioa, presidentea komunitatearen ordezkari papera hartzen ari da, aurrez baimendu ez dioten ekintza bat gauzatzeko. Horrelako kasu mugatuak direnean, presidentek bere izenean erantzun behar du, komunitateak ez badu ekintza horren kontrako erabakirik hartzen. Komunitatearen eguneroko gestioan presidentek erabakiak hartu ditzake eta hartu behar izaten ditu sarri etxejabeen batzarrean arte itxaron gabe, baina gero erabaki horien berri eman beharko du, zehatz-mehatz, urteko batzar nagusian, edo beste edozein batzarretan, baina presidentek ezin ditu etxejabeen batzarren konpetentziak ordezkatu.

GOMENDIOA: Gertaera larri edo presazkoa ez bada, behintzat, hobe izaten da ohiko edo ezohiko etxejabeen batzarra deitzea, gaia landu eta erabakiak hartzeko, presidentek bere kabuz erabaki eta gero etxejabeen batzarri informazioa ematea baino.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ATXUTXIAMAIAKAREN
UDABERRIKO OPORRALDIA 2026
HH2 - HH5

Izen-ematea:
Otsailaren 20tik martxoaren 6ra

On-line izena emateko:
www.atxutxiamaia.eus webgunean

Aurrez aurre:
Elgoibarko Izarra Euskaltzearen Topagunearen bulegoan
(Aita Agirre 3, 3.azkerra, ELGOIBAR)

HH2-HH3
(Apapa-Apariketan)

Jolasa Kalera!
Martxoak 27, Lekuederren, 18:30-18:30 **DOAN**

TXOKOAK:
1.Txanda: Martxoak 30,31 eta apirilak 1
(42€/ 38€ bazkideek)
2.Txanda: apirilak 7, 8, 9 eta 10
(58€/ 50€ bazkideek)
BI TXANDAK: 93 €/ 84 bazkideek

Ordutegia: 9:00-13:00 (malgutasuna 9:00-9:30/12:30-13:00)

UDALAREN DIRULAGUNTZAK
Dirulaguntza horiek jasotzeko informazioa, Elgoibarko Udalean
943 74 10 50 telefonon edota gazteria@elgoibar.eus

HH4-HH5
(Firin-Faran)

Jolasa Kalera!
Martxoak 27, Lekuederren, 18:30-18:30 **DOAN**

TXOKOAK:
1.Txanda: Martxoak 30,31 eta apirilak 1
(42€/ 38€ bazkideek)
2.Txanda: apirilak 7, 8, 9 eta 10
(58€/ 50€ bazkideek)
BI TXANDAK: 93 €/ 84 bazkideek

Ordutegia: 9:00-13:00



ELGOIBAR

Irene Gonzalez Pacheco



2026ko otsailaren 19an hil zen, 90 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Familia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

ELGOIBAR

Juan Luis Bergaretxe Arregi



2026ko otsailaren 19an hil zen, 89 urte zituela.

*Maitasunak zugana narama,
oroitzapenetan elkartzen jarraituko dugu*

Zure sendia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:

DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383

ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112

ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350

SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENE EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eua

OSTIRALA 27

- **ERMUA M8ko asanblada irekia** Ermuko mugimendu feministak antolatuta. Emakumeen Topalekuan, 18:00etan.
- **ERMUA Argazki erakusketa: 'Oscar Blanco'** Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR** Zazpigarren arteari buruzko kafe-tertulia Loredi Salegik gidatuko du. Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.
- **ITZIAR** Ipuin musikatua eta jazz kontzertua Burugorri gainean, 18:30ean.
- **DEBA** Euskal presoen eta iheslarien giza

- eskubideen aldeko mobilizazioa Foruen plazan, 19:30ean.
- **ELGOIBAR** Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko elkarretaratzea Kalegoen plazan, 20:00etan.
- **SORALUZE** Kontzertua: Duo Brasco Asigor tabernan, 20:30ean.
- **ERMUA** 'Pero no se lo digas' antzezlan Antzokian, 20:30ean.

LARUNBATA 28

- **SORALUZE** Zuhaitz Eguna Askabeitia iturri inguruko lur eremuan egingo dute aurtengo Zuhaitz Eguna. 09:00etan elkartuko dira, Urkiazelain,



- eta handik landaketa eremura oinez igoko dira.
- **ELGOIBAR** Hil bukaerako azoka 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde artisau taldearen produktuen salmenta, Aita Agirre plazan. 11:00etatik aurrera. Jtsua taldeak pintxoak prestatuko ditu Aita Agirre plazan, Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin.

- **SORALUZE** Jaialdia: 'Pianoaz gozatzen' Soraluzeko Musika Eskolak eta Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteak elkarlanean antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 09:30ean.
- **MENDARO** Autodefentsa tailerra Itaiak antolatuta, Martxoaren 8ari begirako egitarauaren barruan. Gaztetxean, 11:00etan.
- **ERMUA** Merkatu plazan Dantzan Dantza saio irekia. Merkatu plazan, 12:00etan.
- **ERMUA** Argazki erakusketa: 'Oscar Blanco' Lobiano Kulturgunean, 12:00etan.
- **MALLABIA** Binakako txapelketa Pilotariak: Barrokak-Perez / Gomez-Agirre eta Iturriaga-Orbegozo / Oskoz-Arrastia. Mallabia I.a Pilotalekuan, 17:00etan.
- **MENDARO** Ihes-gela Zientziari buruzko ihes-gela. Gaztelekuan, 17:00etatik aurrera.

IGANDEA 1

- **ITZIAR** Zuhaitz landaketa Andutzen Hitzordua Ayra Cardan fabrikaren parean, 09:00etan.
- **ELGOIBAR** Dultzaineroen diana Herriko kaleetan zehar, 10:00etan.
- **MENDARO** Aingeru Guardako jaiak Udalak eta Aingeru Guardako jai batzordeak antolatuta, Plaza auzoan. 12:00etan, meza nagusia; 12:30ean, trikitilariak; ondoren, herri kirolak. Jai batzordekoek taberna jarriko dute.
- **ERMUA** Argazki erakusketa: 'Oscar Blanco' Lobiano Kulturgunean, 12:00etan.
- **MALLABIA** Rouhifa Kassem artistaren pintura erakusketaren aurkezpena Antolatzailea: Nahikari Emakume Elkarte. Kontzejuzarrean, 12:00etan.
- **MALLABIA** Bideo foruma: 'La boda de

LARUNBATA 28

DEBA Kontzertua: Hecetu Welo + Koda Hitzordua Debarock Kolektiboak antolatu du, Debako Gazte Asanbladaren laguntzarekin. Kontzerturako sarrera: 5 euro. Ateak 19:00etan irekiko dituzte. Gaztetxean, 20:00etan.

- Rosa'** Antolatzailea: Nahikari Emakume Elkarte. Kontzejuzarrean, 12:30ean.
- **MALLABIA** Pintura erakusketa: 'Mirada de una mujer palestina', Rouhifa Kassem. Antolatzailea: Nahikari Emakume Elkarte. Kontzejuzarrean, Ohiko ordutegian.
- **ELGOIBAR** Udal Musika Bandaren kontzertua Inazio Bereziartua musika eskolako bandarekin. Zuzendariak: Gorka Mujika, Lucia Otaegi eta Beñat Isasti. Egitaraua: 1. *Fanfare and flourishes* (J. Curnow); 2. *What a wonderful world* (B. Thiele); 3. *Adele on concert* (M. Brown); 4. *Distant thunder* (M. Sweewey); 5. *Happy* (P. Williams); 6. *The great steamboat race* (R.W. Smith); 7. *Loch lomond* (F. Ticheli); eta 8. *The Blues brothers* (J. Boccok). Herriko Antzokian, 12:30ean.



LARUNBATA 28

- **ERMUA** Andaluziako Eguna: Flamenko jaialdia. Andaluziako Kultur Zentroak antolatuta. Parte-hartzaileak: Carlos Canela kantaria, Rafa de Borja gitarriista, Dario Campos perkusionista, Toño Jimenez dantzaria eta Eva dantza akademia. Sarrera doan, edukiera mugatuarekin. Ermua Antzokian, 16:00etan.

OSASUN GIDA

RPS 271/12

ainhoa

dieta eta erapila

Jausoro plaza, 6 behea - Elgoibar

943 531 953

669 565 745

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar

943 740 359

Deba

943 192 192

RPS 233/13

aldaz

hartz klinikak

943 366 377

San Bartolome, 22

RPS 177/08

fisio&más

Fisioterapia arruntak eta Kirol Berregakitzak

Trebitako kalea, 13

943 740 191 / 667 953 628

www.fisio-mas.com

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22

Elbar

677 551 850

leku eder

hartz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Alta Agine Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

- **ITZIAR Sormen tailerra eta 'Ellas en la ciudad' dokumentalaren proiektzioa** Debabarreneko Itaiak Martxoaren 8aren bueltan *Emakume langileok askatzeko batu borrokara!* lelopean antolatutako hitzordua. Burugorri gainean, 18:00etan.
- **DEBA Martxoaren 8an Zea Maysen 'Elektrizitatea' abesteko entsegua** Musika eskolan, 18:00etan.
- **MENDARO 'Chiriroren bidaia' filmaren emanaldia** Gaztelekuan, 18:00etan.

ASTELEHENA 2

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Amalgama Gráfica XI'** Hainbat artistaren grabatuak erakusgai egongo dira Oreka Art galerian. Irekiera-ekitaldia: otsailaren 6an, barikua, 19:00etan. Orduategia: astelehenetik barikura, 19:00-20:00.

ASTEARTEA 3

- **ITZIAR Itziarko irakurketa taldea (haurrak eta gazteak): 'Martin'** Alaine Agirre idazleak gidatuko du saioa. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 17:30ean.
- **ITZIAR Itziarko irakurketa taldea (helduak): 'Zoriona edo**



antzeko zerbait' Alaine Agirre idazleak gidatuko du saioa. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 19:00etan.

ASTEAZKENA 4

- **ELGOIBAR Tailerra: 'Presio bidezko ultzerak saihestea'** Osakidetzak, Jubilatuen Biltokiak eta Ongizate Sailak antolatu dute saioa. Jubilatuen Biltokian, 16:00etan.
- **ITZIAR Odol ematea** Aurrez txanda eskatzea komeni da. Interesa dutenek 634 07 34 98 telefono zenbakira deitu edo idatzi beharko dute. Burugorri gainean, 16:30etik 20:30era.
- **MENDARO 'Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?' Arantxa Urretabizkaia**ren hitzaldia Udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Epeletan: 'Persepolis'** Ainhoa Aldazabalek gidatuta. Gotzon Garate udal liburutegian, 19:30ean.

OSTEGUNA 5

- **ELGOIBAR Kaleko stock azoka** Txankakuak antolatuta, stock kale azoka egingo dute, denden ordutegian, 09:00etatik aurrera.
- **DEBA Hitzaldia: 'Zientziaz, gizarteaz eta berdintasunaz hitz egingo dugu'** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Hizlaria: Marta Macho matematikaria eta zientzia-dibulgatzailea. Kultur Elkartean, 10:00etan.

OSTIRALA 6

- **ELGOIBAR Kaleko stock azoka** Txankakuak antolatuta, stock kale azoka egingo dute, denden ordutegian, 09:00etatik aurrera.
- **SORALUZE Tailerra: 'Etxeke ekonomia'** Nagusien Kontseiluaren ekimenez antolatutako

OSTIRALA 6

MENDARO 'Ovarios verdes fritos' antzezlana Belen Nevadok idatzi, zuzendu eta interpretatutako antzerki probokatzaile eta komikoa da. Antzezlanak emakumeen ahalduntzea, norberaren plazera eta zoru pelbikoaren indarra umorez jorratzen ditu, emakume eta gizonentzako proposamen aldarrikatzailea izanik. San Agustín kulturgunean, 18:30ean.

- **MENDARO Landaola sari banaketa** ekitaldia Landa garapenaren alde egindako lana saritzen dute. San Agustín kulturgunean, 12:00etan.
- **ERMUA M8 Asanblada irekia** Ermuko mugimendu feministak antolatuta. Emakumeen Topalekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Erakusketa: 'Noraezean'** Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Jon Garate Ondarre argazkilari elgoibartarraren lanak jarriko dituzte ikusgai, hilaren 21era arte.

- **ERMUA Filipa Balbinaren umorezko ikuskizuna** Lobiano Kulturgunean, 19:00etan.
- **SORALUZE Triki-poteo** Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Kultur Etxe aurrean, 19:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Vitalia Samuilova: ¿Quién lleva a quién?'** Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **ERMUA Kontzertua: Bely Basarte** Sarrera: 15 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Pintxo-afaria** Emakume Feministen Asanbladak antolatuta. Kultur Kafean, 21:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

27 BARIKUA	Arriola / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
28 ZAPATUA	Fernandez / ★ Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá / ★ I. Lecumberri
1 DOMEKA	Fernandez / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá
2 ASTELEHENA	Yudego / A. Zalduegi / M.I. Ugarte
3 MARTITZENA	Oruesagasti / A. Zalduegi / A.M. Baz
4 EGUAZTENA	Barrenetxea / A. Zalduegi / M. Alves
5 EGUENA	Soto / A. Zalduegi / I. Lecumberri
6 BARIKUA	Garitaonandia / H. Burgoa / A. Alcalá
★ 09:00-14:00 / ★ 09:00-13:30	

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

Deba: A. Zalduegi (Lersundi, 20 - 669 26 22 01)
Deba: H. Burgoa (Astillero, 2 - 667 33 88 90)
Elgoibar: Arriola (Santa Ana, 1- 943 74 01 40)
Elgoibar: Barrenetxea (Errosario, 26 - 943 74 12 77)
Elgoibar: Garitaonandia (Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77)
Elgoibar: Yudego (San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93)
Ermua: A.M. Baz (Zearkale 2 - 943 03 17 03)
Ermua: M. Alves (Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66)
Ermua: A. Alcalá (Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54)
Ermua: I. Lecumberri (Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97)
Ermua: M.I. Ugarte (Goienkale, 11 - 943 17 05 26)
Mallabia: E. Arronategi (Mallazpi z/g - 943 17 24 14)
Mendaro: Fernandez (Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42)
Mutriku: Lasuen-Elezgaray (Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92)
Mutriku: L. Apraiz (Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97)
Soraluze: Soto (Rekalde, 1 - 943 75 16 38)
Soraluze: Oruesagasti (Kalebarren, 9 - 943 75 13 84)

ZINEMA

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Aída y vuelta'
Larunbata, 28: 19:30
Astelehena, 2: 20:30
'Marty Supreme'
Larunbata, 28: 22:00
Igandea, 1: 19:30
'Frankie y los monstruos'
Igandea, 1: 17:00

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'Hamnet'
Ostirala, 27: 19:00
Larunbata, 28: 19:00, 22:15
Igandea, 1: 19:00
Astelehena, 2: 21:00
'Los guardianes del diente mágico'
Igandea, 1: 16:30
'Liámame sinsorga' (Ongarri zinekluba)
Asteazkena, 4: 21:00
'No estás loca'
Osteguna, 5: 19:00
'Aída y vuelta'
Ostirala, 6: 19:00

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'CIMASUB: Brontzezko saioa'
Osteguna, 5: 18:30

ITZIAR

BURUGORRI GAINA
'Ellas en la ciudad'
Igandea, 1: 18:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'El vestido'
Larunbata, 28: 17:00, 19:45, 22:30
Igandea, 1: 17:00, 20:00
Astelehena, 2: 19:30
'La tarta del presidente'
Larunbata, 28: 19:45, 22:30
Igandea, 1: 17:00, 20:00
Astelehena, 2: 19:30
'Return to Silent Hill'
Larunbata, 28: 19:45, 22:30
Igandea, 1: 20:00
Astelehena, 2: 19:30
'Evolution'
Larunbata, 28: 17:00
Igandea, 1: 17:00



OSTIRALA 6

ELGOIBAR 'Esne berriketan' bertso-saio literarioa 57 kontalarik ahoz kontatutako istorioak idatziz eman ditu *Esne-berriketan* liburuan Uxue Alberdik, eta liburuaren inguruko bertso-saio literarioarekin dabil orain herriz herri, Amorante musikariarekin. Musika eskolako auditoriumean, 19:00etan.

AZKEN BERBA

**Zoru
labainkorra**



ARKAITZ URANGA
ITZULTZAILEA

Seguru nago gaur bertan
euskararen egoeraren
inguruko kale-galdeketa bat
egino bagenu, uste baino
gehiagok erantzungo luketela
ez zaiela kezagarria
iruditzen. Eta erantzun
horrek, hein batean, badu
bere justifikazioa.

Euskara hizkuntza ofizial eta *normalizatu* den garaian jaio garenok gaiaren inguruan sakonegi hausnartzen ez badugu, ez dugu aparteko arrazoirik arduratzeko: eskola-ibilbide osoa euskaraz egiteko aukera dugu; ospitalera, udaletxera edo liburutegira joaten garenean, oro har, euskaraz egin ahal izaten dugu; gune eta esparru askotan ulermen unibertsaletik oso urrun ez gara bizi, eta inork ez digu harrika egiten euskaraz aritzeagatik –teoria eta praktika oso desberdinak dira, baina tira, plano teorikoaren inguruan ari garen honetan, ez gaitzen haratago joan-. Ez dago horren gaizki, ezta?

Azken 50 urteetan
ikaragarritzko lana egin da
euskararen normalizazioan,
eta egia da garai batean
existitzen ez zen zoru bat
eraikitzea lortu dela.
Pozgarria da, noski, eta urte
horietan guztietan egindako
lan nekaezina ez da inolaz
ere gutxietsi behar; baina
gaur egungo egoera horrek
segurtasun-sentsazio faltsu
bat sor diezaguke. Euskarak
zoru sendo bat du, bai, baina
zoru hori labainkorra da.
Ezin dugu nahi bezain azkar
edo libre ibili haren gainean,
zoritxarrez oraindik oso
erraz egiten baita laprast.
Are gehiago, gainera,
azkenaldian kanpotik egiten
dizkiguten zangotraba
guztiekin; gero eta maizago
eta gero eta lotsa
gutxiagorekin.

BUKATZEKO

Harizti bat Mendaroko Intxusadin

Udalak eta guraso elkarteak deituta, 300 haritz-landare sartu dituzte Mendaron

Ainara Argoitia MENDARO

Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak Zuhaitz Eguna antolatu zuten iganderako, urte sasoi honetan ohikoa bihurtu den eran. 10:00etarako egin zuten auzolanerako deia antolatzaileek, eta, ume eta guraso, 40 bat lagun batu ziren plazara, lanerako gertu. Hantxe ziren Naturtzaindiko Iñaki Aizpurua eta Jon Zulaika biologoak ere, behar zenean laguntzeko, auto bete erremintarekin. Ardura-dunek ez beste guztiek oinez egin zuten Plaza auzorainoko bidea; hantxe, azken hiru urteetan lanean jardun duten lursail berean zituzten sartzeko arbola-landareak, Intxusadiko Goikolan. 42 bat hektareako sail pendiza da, duela bost urte inguru Udalak erosi eta garbitu zuena, Jaurralitzari dirulaguntza eskatuta.

Intxusadi erreka gurutzatu beharra zuten lanerakoek landaketa-eremura iristeko, baina, azken egunetako euriak tarteko, ohi baino haziago zetorren erreka, eta Garagartzatik, Kilimon errekatik, eramandako egur-xaflekin egina zuten zubia ordurako. Aitzurrak eta landareak lepoan hartu eta banan-banan gurutzatu zuten erreka lanerakoek, kontu eta irri, inork ez baitzuen nahi eguna ur hotzetan hasi; are gutxiago, beste guztien aurrean. Pasatu zuten denek, eta abiatu ziren gero aldapan gora, duela bi urte landatutako landare-zerrendaren ondoan gora. Babesgarria jarrita zuten arbola gazteek, orkatzek eta gainera-ko animalia basek honda ez zitzen. Eta, konturatzerako, landaketa-eremura iritsi ziren, ekialdera begirako mendi-hegalera.

Itziarko Salsamendi menditik Otarrerrainoko gain guztiak begizta zitezkeen handik parez pare, eta, ezkerrera begiratuta, Mendaro bertako Emezabal, Etarte, Olia, Agarre-Txiki eta Agarre Handi baserriak ere garbi ikus zitezkeen, sasoi batean pinuak estalitako mendi soilduan. Harri gainean jarri eta inguruari begira gelditzekeo hobeaa egiten zuen, eguzkiak



Naturtzaindiko Jon Zulaika eta herritarrak, lanean, atzean Mendaro dutela. A. ARGOTIA



Herritarrak, arbolak sartzen. Atzean, Etarte, Olia eta Emezabal baserriak. A. ARGOITIA

garbitua zuelako goizeko gandra, baina aitzurrak hartu eta ekin zioten lanari denek, ahalegin betean. Ordurako, eginak zizkieten zuloak mendi-mutilek, eta haietan landareak sartu eta sustraiaik gozo-gozo estaltzea zuten lana gainerakoek. Ez zuten, baina, lan erraza izan harri, ote eta arkazi adarrez betetako paraje hartan; ez, behintzat, besoak eta hankak sastatu gabe. Baina ez zegoen han inor atzean gelditzeko, ezta beste batek egin zain egoteko ere. Izan ere, horretarakoxe

batzen dira urtero Zuhaitz Egu-
nean, gaixo dagoen Lur plane-
tari arnasa emateko, nork
beretik eta txikitik eraginez,
dena besteek egin zain geldit-
zeak nekez eman ohi duelako
emaitzarik.

**Udalak duela bost bat
urte erositako 42
hektareako lursailean
landatu zituzten
arbola-landareak**

Landaketa gehiago

SORALUZE

Otsailak 28, larunbata.

Soraluzeko Udalak, Baso Biziak elkarteak, Lurguia fundazioak eta herriko hainbat eragilek antolatu dute, Korrika Kulturalaren barruan. Azkarabeitia iturri inguruko lur eremuan egingo dute landaketa. 250 bat landare sartzea da asmoa; denak ere, bertako espezieak. 09:00etan elkartuko dira, Urkiazelain, eta oinez egingo dute landaketa eremurainoko bidea. Ondo bidean, 13:00etarako amaitu nahi dituzte lanak, eta ondoren mokadua egingo dute.

ITZIAR

Martxoak 1, igandea. 500 arbola-landare sartuko dituzte Andutzen, Eluzetako elurzulotik gorako pendizean. Itziarko Auzo Udalak antolatu du, eta Lizarbe guraso elkarteak, Itziarko Gazte Asanbladak, Lasturko Mendi Marxak eta Gainez Gain taldeak bat egin dute deialdiarekin. 09:00etan irtengo dira, Ayra Cardan paretik. Komeni da izena ematea: 943 19 92 55 / apuntatu@itziar.eus. Gaur da izena emateko azken eguna.

ELGOIBAR

Martxoak 17-18, astearte eta asteazken: Udalak antolatutako Zuhaitz Eguna, herriko ikastetxeen laguntzarekin. Morun egingo dute zuhaitz landaketa. 11-12 urtekoek parte hartuko dute.

MALLABIA

Martxoak 21. Basoen Nazioarteko Egunaren harira, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako haritz-landareak (*Quercus robur*) eskainiko dizkie Udalak herritarrei. Martxoaren 6a arteko epea eman du eskaerak egiteko. Udaletxean egin behar dira eskaerak.